

HAUTESKUNDE EGITARRAUA  
2014-2019

**EUSKADI  
GEHIAGO**



ea  
pnv

**EUROPA  
BERRIAN**

I AM  
BASQUE





# HAUTESKUNDE PROGRAMA

## 2104KO EUROPAR HAUTESKUNDEAK

<b>A.- Sarrera: Kontsiderazio Orokorrak .....</b>	<b>5</b>
1. Hauteskunde-testuingurua .....	6
2. Behar dugun Europar Batasuna.....	8
3. Identitatea Europan .....	10
4. Gure lan eta ordezkaritza.....	11
<b>B.- Proposamen Sektorialak .....</b>	<b>13</b>
1. Ekonomia .....	14
2. Enplegua .....	15
3. Gazteen eta emakumeen enplegua .....	17
4. berdintasuna: ezinbesteko betekizuna demokraziarentzat eta lehiakortasunarentzat .....	18
5. Europa 2020 .....	19
6. Europako Politika Industriala .....	21
7. Ikerkuntza, Garapena eta Berrikuntza .....	22
8. Garraioa eta Herrilanak .....	24
9. Hezkuntza eta Gazteria .....	25
10. Ingurumena eta Energia .....	27
11. Lehenengo Sektorea: Nekazaritza eta Arrantza Politika .....	29
12. Euskara eta Eleaniztasuna .....	32
13. Kultura eta Sormena .....	34
14. Europako Gizarte Eredua .....	35
15. Arku Atlantikoa .....	36
16. Kanpo Dimentsioa eta Askatasun Publikoak .....	38
<b>C. European Democratic Party - Europako Alderdi Demokratikoaren Adierazpena .....</b>	<b>41</b>



A) SARRERA:  
KONTSIDERAZIO  
OROKORRAK

**EUSKADI  
GEHIAGO**



eaaj  
pnv

**EUROPA  
BERRIAN**

I AM  
BASQUE



## 1.- HAUTESKUNDE-TESTUINGURUA

Datorren maiatzaren 25eko europar-hauteskundeak krisi sistemikoko eta ziurgabetasun handiko testuinguru batean egingo dira. Orain dela bost urte, 2009 urteko hauteskunde-prozesuan, inork ere ez zuen aurreikusten norainokoak izango ziren Europar Batasunak aurrez aurre izan dituen arazoek neurria eta pisua.

2007an piztutako krisi ekonomiko eta finantzarioaren ostean, zor soberanoaren eta banku-sistemaren krisiak etorri dira. Europako ekonomiak atzeraldi sakona bizi izan du. Egoera hori gainditzera zuzendutako talka-neurriak partzialak izan dira, eta kasu batzuetan erabat okerrak.

Krisiaren testuinguruan, agerian geratu dira Europar Batasuneko instituzio komunen eta Europako Banku Zentralaren gabeziak. Gaur egun, Batzordeak ez du autonomia nahikorik EBko estatuen aurrean, ezta baliabide nahikorik ere europar politikak gidatzeko (beraren aurrekontua Europako BPGaren % 1aren adinakoa da). Kontseiluak gobernu arteko ikuspegi estatalizatua ematen die instituzioei, eta oztopo nabariak jarri ditu Europar Batasunak eskuratu ez zitzaizkiren bere erronka globalei aurre egiteko beharrezkoak dituen gobernantza-eta ikuskaritza-mekanismoak. Europako Banku Zentralak ez du tresna egokirik izan tsunami finantzario-ekonomikoari aurre egiteko, inflazioa ikuskatzeko berez duen posiziotik.

Horregatik, austeritatea lehenetsi du behar baino gehiago. Oso zaila izan da oreka europar kontu publikoei itzultzeko ahaleginak uztartzea jarduera ekonomikoa eta enplegua sustatzeko politikekin. Horren ondorioa da europar hiritarren beheko eta erdiko mailak pobretu egin direla. Gaur egun, Europak 26 milioi langabe ditu; halaber, oso diferentzia handiak daude beraren estatuetako langabezia-tasen artean, badira lanera itzultzeko zailtasun nabariak dituzten edo ezin itzul daitezkeen pertsonak, eta kontratu berriak oso prekarizatuta daude. Beraz: pobrezia-poltsak eta desberdintasuna hazi dira eta desorekak areagotu dira Europar Batasunaren lurralde-esparruan.

Horixe da, zalantzarik gabe, Europar Batasunaren proiektuaren aurrean herritarren sektore batzuek azaltzen duten eszeptizismoaren eragile nagusia. Horren lehenengo ondorio politikoa da alderdi populista, euroeszeptiko eta xenofoboek gorakada kezagarria. Alderdi horien antieuropeismo aitortuak zalantza sakonak sortzen ditu hauteskunde-erabakiek Europar Batasunean etorkizunean izan litzaketan ondorioez.

Panorama horren aurrean, irtenbide bakarra da europar proiektua bere jatorrizko balioetara berriz eramatea. Europar Batasuna bake proiektu gisa sortu zen, baina baita garapen eta gizarte-kohesioaren motor eta berme gisa ere. Europar Batasunak munduko biztanleriaren % 7,2 soilik biltzen du. Eta munduko Barne Produktu Gordinari % 22 du. Hala eta guztiz ere, inbertsio sozialaren politikek munduko gastu sozial osoaren % 50 gainditzen dute; gisa berean, lankidetzara zuzendutako gastua mundu osoan lankidetzaren politikan gastatzen den diruaren % 50etik gorakoa da. Horregatik, Europar Batasuna erabilgarri eta beharrezkotzat jo izan da beti, eta munduko erreferentzia izan da, eta izaten jarraitzen du, askatasunei eta giza eta gizarte eskubideei dagokienez. Ikuspegi horri eutsi behar diogu. Etorkizunari begira aktibatu behar dugu.

Europaren alde egiteak ez du kritika baztertu behar. Hain zuzen ere, orain da inoiz baino beharrezkoagoa sen kritikoa izatea, eta orain da inoiz baino beharrezkoagoa kritika proposamen positiboekin uztartzea. Lehentasuna da erantzunak ematea herritarren eguneroko arazoei: langabezia, muturreko pobrezia, zahartze demografikoa, klima-aldaketa, hornidura energetikoa, mundu irekirako prestakuntza edo gure gizarte-babesaren ereduaren finantziaketa. Eta erantzunak barne hartu behar ditu europar proiektuaren orientazio politikoa eta egokitasuna baldintzatzen dituzten beste zalantza batzuk gainditzeko irtenbideak.

Horien artean, funtsezkoak dira galdera hauek: nola integratu hobeto herritarrak europar eraikuntzan? Nola integratu hobeto haien ezagutza eta gaitasunak? Nola uztartu ote daitezke europar nazioek EBko erabakietan parte-hartze aktiboa izateko dituzten nahi legitimoak, nazio-estatuak orain dela hamarkada bat bereizten zituzten ezaugarriak gero eta gehiago desagertzen ari direnean? Erantzunekin asmatu behar dugu. Hori funtsezkoa da Europa berriztatuak arrakastaz eraiki dezan geuk bilatzen dugun hiritartasun komuna; izan ere, pertsonengandik urrunduz gero, Europak bere jatorrizko zentzua galduko luke.

## Ezinbesteko aldaketa, dinamika global baten aurrean

Bai alor globalean eta bai Europaren alorrean, gehiengoaren iritzia da paradigma aldaketa baten aurrean gaudela. Sistema ekonomiko eta politiko global baten oinarriak jartzen ari gara. Halaber, bada gehienek onartzen duten iritzi bat, alegia, euroeszeptizismoaren gorakada gorabehera, Europako herrien eta haien herritarren etorkizuna europar integraziotik pasatzen dela. Alde horretatik, bereziki garrantzitsua da europar eredu berri bat definitzea etorkizunerako, mundu multipolar eta globalizatu honetan.

## Ibiltzean egiten da bidea

Lisboako Itunak -2009ko abenduaren 1az geroztik dago indarrean-, bere gabezia eta akatsak gorabehera, nabarmenki indartu ditu Europako Parlamentuaren botereak. Hala, aurreneko aldiz, Batzordeko Presidentea Europar ganberako hauteskundeetan nagusitzen den alderdikoa izango da. Aldi berean, europar alderdi politikoek hauteskunde estataletan egiten den bezala aukeratu dituzte beren hautagaiak, eredu gardenago eta demokratikoagoetara hurbilduz. Oraindik ere ez dugu lortu benetan europarrak diren zerrendak izatea, baina ikusitako bilakaerak nolabaiteko baikortasuna pizten du.

Gisa berean, krisiak ezarritako erreforma instituzionalek oinarriak jarri dituzte Europar Batasunaren benetako gobernantza mankomunaturako. Moneta bakarra kimera hutsa da europar zuzendaritza ekonomiko eta fiskalik gabe. Frogatuta geratu da, halaber, Europak finantza-sistemaren kontrola izan behar duela, arrisku sistemikoa duten erakunde guztien ikuskapenaren bitartez. Tresna horien eraikuntzak goitik behera aldatu ditu burujabetzaren inguruan orain dela bost urte erabiltzen ziren kontzeptuak.

Errealitate horren eraginez, beharrezkoa da berriz aztertzea zer den nazio bat European. Oraingo estatuek utzi diote europar eraikuntzako eragile bakarra izateari. Nazionalitateek ere hausnartu egin behar dute; orain, ez dute zertan kopiatzen saiatu jadanik existitzen ez diren egitura eta ereduak, zeren horiek agerian utzi baitute ez dutela gaitasunik europar eraikuntzan eskatzen duten rola betetzeko.

Proiektu hau bideratzeko modu bakarra da europar eraikuntzarekin bat egin nahi duten izangai guztien atxikipen librea sustatzea. Testuinguru horretan, Europak ezin baztertu ditzakeen -eta baztertu behar ez dituen- prozesu politikoak ireki dira estaturik gabeko nazioetan. Guztiz zentzugabea da esatea horiek barneko kontuak direla, hots, Batasuneko kide batzuek soilik konpondu behar dituzten barneko kontuak. Gezurra da esatea gertaera horiek ez dituztela ukitzen europar instituzioak. Arduragabekeria galanta da egoerari behar den bezala ez erantzutea, hau da, egoerari erantzun politiko, instituzional eta legal egokik gabe aurre egiten saiatzea. Hemen ere, erantzuna demokrazian dago, herrien erabaki librean, errealismoan, lidergoan; ausardia behar da aitortzeko gauzak ez direla berriro izango lehen izan ziren moduan. Eta errealitate berri bat eraiki behar dugula, demokraziaren berezko prozedurekin. Ez inposatu ez eragotzi.

## Demokrazia eta justizia sozial handiagoak ekartzen dituen aldaketa bat

Europa gehiago behar dugu, eta bestelako Europa bat behar dugu. Europa batuago eta sendoagoa, hamarkada batean paradigma asko aldatu dituen mundu honek planteatzen dizkigun erronka globalei aurre egiteko. Proiektu hori behetik gora soilik eraiki daiteke, herritarren atxikipen libretik eta beraren erabilgarritasunaren eta beharraren konbentzimendutik, hau da, konbentzitura egon behar dugu erabilgarria eta beharrezkoa dela Europako gizarte-ereduari eusteko eta mundu-erreferentzia izaten jarraitzeko gizarte-kohesioaren eta garapen iraunkorraren eremuan. Batuta egotea da erreferentzia sendoa eskaintzeko modu bakarra, horren bidez gaitasun ekonomiko, tekniko, intelektual eta politikoa izateko eta horren bidez herrialde emergenteak bultzatzeko askatasunez bizi, lan eta ekoiztera, ibilbidea kontrako noranzkoan egin beharrean. Gainera, jarrera hori lagungarria izan behar da bidezko merkataritza eta akordioak izateko garapen bidean dauden herrialdeekin, eta, halaber, immigrazio ilegalaren eta gizakien trafikoaren drama ezabatzen duen lankidetzapolitika bat ezartzeko.

Eginkizun horrek, gainera, aukera bikainak eskaintzen ditu unitate sozio-politiko eraginkorrenak behin betiko rola aurkitu dezaten arkitektura instituzional berri batean, hots, gardentasunari eta gobernantza eraginkorrako, malguago, bizkorrago eta hurbilago bati ireki behar zaion arkitektura instituzional berri batean. Dibertsitatea aukera eta balioztat hartzea funtsezkoa da aurrerabidea eta gizarte-kohesioa eraikitzen jarraitzeko; horren gakoetako bat da.

### Horri begira, EAJ-PNVk:

1. Ezaugarri hauek dituen Europaren aldeko konpromisoa aldarrikatzen du: demokratikoa, soziala, ekonomikoki aurreratua eta aberastasunaren sortzailea, solidarioa, integratzailea, osasungarria, aniztasuna errespetatzen duena nazio, lurralde eta kultur arloetan, mundu bidezkoago, libreago eta berdintasunezkoagoaren aldekoa, ekologikoki iraunkorragoa, seguruagoa, bakean bizi dena eta giza eskubideak errespetatzen dituena.
2. Europar batasun politiko federalaren aldeko jarrera historikoari eusten dio. Integrazio horren oinarria hauxe izan behar da: herritarrek eta herriek erabakitze-prozesuetan parte hartzea.
3. Maila anitzeko gobernantza-sistema baten inplementazioa defendatzen du, Lisboako Itunean aurreikusitako subsidiarotasun eta proportzionaltasun printzipioak oinarritzat hartuta, europar politika eraginkorragoak eta –herritarrentzat- ulergarriagoak garatu ahal izateko. Helburua: kalitate demokratiko handiagoa lortzea Europar Batasunaren jardura politikoan. Hori da ekosistema instituzional egoki bat bideratzeko modu bakarra, tokikoa eta hurbilekoa Europar Batasuneko egiturekin bateragarri egiteko, herritarren desafekzioa gainditzeari begira.
4. Lisboako Ituna eguneratzeko balio duen Europar Konbentzio baten beharra defendatzen du, beraren bidez XXI. mendeko betekizunei egokitzen zaien europar gobernu bat eratzeke eta Estatu ez diren gainerako subjektu politikoaren rol aktiboa aitortzeko. Europar Batasunak aitortu behar ditu Euskadikoaren moduko errealitate nazionalak, eta mekanismo juridikoak eratu behar ditu Batasunaren barneko zabalkuntza ahalbidetzeko, kanpoko zabalkuntzak gidatu dituzten printzipio eta baldintzei jarraituz –Kopenhageko irizpideak-. Barneko zabalkuntza hori eta herritarren parte-hartzerako bideen hobekuntza lagungarriak izango dira Europar Batasuneko sare instituzionalaren eta erabakitze-prozesuen funtzionamendua demokratikoagoak eta gardenagoak izan daitezen. Gainera, Europako Batzordearen rola indartzearen alde gaude, integrazio proiektuaren motor gisa, eta Europako Parlamentuarena ere bai, gobernu arteko metodoa eta EBko ekosistematik kanpoko erakundeak lehenetsi beharrean; izan ere, erakunde horiek –adibidez: NDFk- oso protagonismo arriskutsua hartu dute krisiaren urteetan.

## 2.- BEHAR DUGUN EUROPAR BATASUNA

EAJ-PNVk Europar Batasun Federal sendoagoa eta batuagoa defendatzen du, bere defizit demokratiko eta instituzionala modu nabarian hobetuta. Europar Batasuna birsortu behar dugu, pertsonak lehenetsiz eta –hortaz- bere ospearen galera gaindituz, leialtasuna eta erantzukizuna oinarritzat hartuta, jadanik abiatuta dagoen trantsizioa burutzeko; hala, trantsizio horrek bere ortziko izar guztiak behar ditu, eta gure “*more basque way*”k ekarpen handia egin diezaiokete horretan.

### Pertsonen begiratuz bere ospearen galera gainditzeko duen Batasun bat,

Ospearen galera, ezkortasuna, axolagabekeria, eszeptizismo handia eta –batzuetan- etsaitasun agerikoa dira europar proiektuari begira herritar askok adierazten dituzten jarrerak. EBko agintaritzak Batasunaren historiako krisi larrienari aurre egin behar izan dio legegintzaldi honetan. Oreka Eurozonako kontu publikoei itzultzeko hartu diren neurriek Bruselan hartutako erabakiak izan dituzte beren erdigunean. Eta bidezkoa da aitortzea EBko estatu batzuen ogasuna oneratzeko exijitu den zorroztasuna askoz ere sentikorragoa izan beharko zatekeela pertsonekin. Europako eredu soziala defendatzea, gizarte-babes, osasun eta hezkuntza maila duin eta konpartituak



beraren ezaugarri gisa lehenestea da ezagutzen den prozedurarik onena pertsonak, haien ongizatea eta haien garapena ekintza politikoaren ardatza izan daitezen. Gizakiongandik hurbilago dagoen eta –hortaz- zibikoagoa eta sozialagoa den Europaren alde lan egin behar dugu, pertsonak europar eraikuntzaren erdigunean jartzeko.

### Leialtasun eta erantzukizunean oinarrituta,

Egia da, bestalde, europar rolari buruz krisi honetan plazaratu diren diskurtso askok erantzukizunetatik ihes egiteko balio izan dutela. Begi bistakoa da Espainiar Estatua horren adibide garbia dela. Azken hogeitau urteotan, gobernuan txandakatu diren espainiar alderdi handiak ez dira gai izan –ez bata ez bestea- espainiar eredu ekonomiko eta produktiboa aldatzeko. Aitzitik, biak okerreko bidetik joan dira neurri berdinean, eta hazkunde eutsiezineko eredu bat bultzatu dute; testuinguru horretan, higiezinaren espekulazioak eta eraikuntzak sortutako burbuilua hautsi egin zen, eta horren ondorioak oraindik ere ordaintzen ari gara. Horrenbestez, pairatzen ari garen murrizketen lehenengo erantzukizuna ez zaio Europar Batasunari egotzi behar, espainiar gobernuari berei baizik. Eredu horrek, gainera, ustelkeria bultzatu duen ongaria eta *modus operandia* ekarri ditu eta maila ziztrinean jarri du “Espaina marka” deritzana.

### Beharrezkoa den trantsizio bat osatzeko,

Testuinguru horretan, europar instituzioek bilakaera erabakigarria bizi izan dute aurreko legegintzaldian, Europa benetako esparru federal bihurtzeari begira. Krisiak eragindako erreformek eskumen garrantzitsuak eman dizkiete europar instituzioei ekonomiaren alorrean. EBko estatuek funtsezko aginpideak eskualdatu dituzte Batasunaren gabezia instituzional nagusietako bat gainditzeko: moneta bakarra duen esparru batek gobernantza ekonomiko propioa behar du, harmonizazio fiskal handiagoa eta ikuskapen-mekanismo egokiak, bai finantza-sistemaren osasuna finkatzeko eta bai arrisku sistemikoa duten erakundeen gaineko ikuskapen independente eta fidagarria bermatzeko. Hori lortzeko bidean gaude, zeren beharra eta borondate politikoa, aurrean izandako zailtasun izugarriak gorabehera, nabarmenki gailendu baitzaizkie Lisboako Itunak zentzu horretan ezartzen zituen mugei.

### Jadanik abiatuta dagoen trantsizio bat,

Erreforma horien irismena, gobernantza ekonomikoari eta finantza-ikuskapenari buruzko legediaren onarpenean zehaztuta, behar den bezala baloratuko da urte batzuen buruan, eta frogatuta uzten du arazo globalek, Mendebaldeko mundua amildegiaren ertzera eramane duen finantza-krisiaren modukoek, irtenbide globalak behar dituztela: erantzun horiek europar mailan soilik eman daitezke, gutxienez. Ildo berean sar daitezke EBko estatuen zorra mankomunatzeko eta finantza-transakzioen gaineko tasa bat ezartzeko abiatutako ekimenak, horren bidez mugimendu espekulatiboak mugatzeko eta finantza-sistema ekonomia errearen zerbitzuan berriz jartzeko, horren aldeko tresna gisa, EBko instituzioentzako sarrerak sortzeaz batera. Batzordeak mekanismo erabakigarri horiek eskuratu behar ditu, europar gobernuaren gaitasun eta autonomia politikoa finkatzeko. Gainera, finantza-merkatuen manipulazioa eta haren kudeatzaileen jokabide arduragabeak zigor-delitu bihurtzeko erreformak ere sakondu behar dira.

### Bere ortziko izar guztien argia behar duena,

Aldi berean, europar instituzioak konturatu dira estatuen eskala jarrera eskusibisten eta monopolioen gotorleku bihurtzen dela eta eskualdeen eskala, aldiz, estatuala baino eraginkorragoa izaten dela ekonomia produktibo eta errearen aldeko ekimenak garatzeko.

Eskualde askok –Euskadi horren adibidea da- erakutsi dute alor horretan duten ahalmena, ekimen ugariaren bitartez: ekintzailtzari laguntzea, baldintza egokiak sortzea ikerkuntzaren eta berrikuntzaren alorrean, prestakuntzaren eremuan, finantziarioan eta internazionalizazioan, garapen soziala uztartuta daraman garapen ekonomikoa bultzatzeko.

Osatzen duten nazioen estatus politikoa aitortzen duen bestelako Europa baten alde lan egin behar dugu.

## Gure “*more basque way*”ren aldetik ekarpen handia lor dezakeena.

Horregatik, Euskadi nazio gisa Europan aitortua izatera daraman bidea da ekonomia errearen eta kohesio sozialaren aldeko apustuari eustea, gure autogobernuko instituzioak –batez ere Kontzertu Ekonomikoa– modu egokian txertatuz Europako panorama instituzional berrian. Gure espezifikotasunak ahalbidetzen digu berrikuntza, freskotasuna eta irtenbideak eskaintzea eztabaida horretan, kontuan hartuta gure asmoa ez dela nazio-estatu zaharrak koptatzea, baizik eta Europan nazioa izateko forma berri bat sorraraztea. ETA desagertuta, Euskadik bere benetako identitate-zantzuak berreskuratu ditu Europan eta ezaguna eta aitortua da. Izan ere, Europar Batasuneko lurraldean ez dago geu bezala, 30 urtean eta terrorismoak ekarri duen zama gorabehera, EBko batez besteko errentaren % 70etik % 130 igo ahal izan den lurralderik, ez dago garai horretan bere BPGa hamar halakotu duen eta bere sare industrial eta ekonomikoa pisu industrialik galdu gabe erabat aldatu duen beste lurralderik. Bere lurreko gizartearen alde egiteko herritarrek azaldutako borondate irmoak eta haien esfortzu etengabeak, nazionalismo demokratikoaren lidergo garbiak eta politika egokiek ahalbidetu dute Euskadik entitate eta identitatea izatea Europan.

Gure lehenengo betebeharra da apustu horri eustea: benetako euskal bidea, Europan erabat aitortuak izateko: “*More Basque Way*”.

## 3.- IDENTITATEA EUROPAN

### Entitatea eta I+G = Identitatea

Zuen lan eta ahalegin etengabeek esker, gaur egun badugu entitatea Europan. Bertako instituzioek errespetuz behatzen dute euskal gizartearen esfortzua eta emaitzak aitortu eta baloratzen dituzte, herri eta lurralde jakin batekin identifikatzen baitituzte. Emaitza onak izan dituen esfortzu kolektibo, iraunkor, eskuzabal eta konpartitu baten ondorioa da. Eta ez da, inola ere ez, kasualitatearen ondorioa. Horregatik, fiskalitateari buruz Europan egin diren azken azterlanetan txalotu egin dira gure Kontzertu eta Hitzarmen Ekonomikoan islatzen den federalismo fiskalaren printzipioak, defizitaren kontrako tresna gisa eta garapenerako aukera gisa.

Horregatik, gure bidea izan behar da gure entitatea indartzea eta horren bitartez bestelako estatus instituzional bat lortzea Europan. Bilatzen dugun posizio horretan, gure identitate sozioekonomikoak isla egokia izan behar du Europar Batasuneko instituzio komunekin ditugun harremanetan: presentzia izatea Kontseiluan; posizio egoki bat Ecofinen, gure sistema fiskalaren errealitatearekin eta Luxenburgoko Auzitegiak horri buruz emandako epaiekin bat datorrena. Beharrezkoa dugu, halaber, Ertzaintza Schengen sisteman behin betiko integratzea, ordezkari propioak izatea Europako Parlamentuan, eta tratamendu ofizial lortzea bat gure hizkuntzarentzat.

### Entitatea = aukera

Europak erreferentziatzeko ereduak bilatzen ditu bere lurraldean. Euskadik azken hiru hamarkadetan izandako bilakaeraren eraginez, gure herrialdea behatzeko eta aztertzeko gune interesgarria da. Euskadi erreferente erakargarria da lankidetzaren publiko-pribatuaren alorreko jardueretan, kluster industriaren garapenean eta ekonomia erreala garatzera zuzendutako beste neurri batzuetan. Posizio horretatik, Euskadik parte har dezake eta esperientzia berriak proposatu, lankidetzaren mekanikak indartzeko eta europar funtsak eskuratzeko gaitasuna hobetzeko, batez ere 2020ko helburuei lotutakoek dagokienez.

### Nahi izatea ahal izatea da

Horiexek dira konpondu behar ditugun gaiak, beste izar bat izan nahi badugu Europako zeruan. Estatu batzuek Europan modu egokian integratzeko eskubidea aitortzen diete beren barneko nazioei. Beste batzuek, aldiz, ez

dute onartzen ezta nazio anitzeko estatuak ere direnik. Krisiarekin gertatu den bezala, arazoa erreala da, eta beraren konponbiderako ausardia, elkarrizketa eta pragmatismoa aplikatu beharko lirateke.

Bada formula ezagun bat. Demokrazia deitzen da. Europar proiektua Demokrazia da, eta badu dibertsitatea bereganatzeko esperientzia paregabea. Horregatik da etxeko gatazkak konpontzeko esparru naturala, hots, sarritan eta denbora luzez etengabeko katean enkistatuta geratu diren etxeko gatazkak konpontzeko esparru naturala. Irmotasunez lan egingo dugu konponbiderako borondate politikoa –krisiaren aurrean egiaztatua– horrelako gatazketan ere aplikatu dadin, prozedura adostu eta konpartitu bat sortu ahal izateko, Europar Batasuna indartzera zuzendutako europar irtenbide bat, bere etorkizunaz erabaki nahi duten gizarteak Batasunean mantentzeko, europarrak izaten jarraitu nahi duten gizarteak, estatu gisa partaide izateko baldintzak betetzen dituztenak, europar proiektuaren jatorrian dauden gizarteak, Europar Batasunari aktibo ekonomiko, sozial eta kultural ugari jadanik ekartzen dizkioten gizarteak.

### Eta ahal izatea bakea eta adiskidetzea da

Bidaia honetan, gainera, Europak lagun diezaguke bakearen eta adiskidetzearen saskiak betetzen, berrogeita hamar urtez iraun duen indarkeria terroristaren ostean. Euskadi nazioa, bakearen eta aurrerabidearen zerbitzuan jarritako proiektu gisa. EBren esku-hartzea erabakigarria izan da Irlandako prozesua finkatzeko, PEACE I eta II programei esker. Bada, EAJ-PNVk euskal gizartearen bake eta normalizazio prozesuaren aldeko sostengu koherentea eskatzen du, indarkeria terroristak sortu dituen asaldura instituzionalak, sozialak, etikoak eta era guztietakoak behin betiko konpontzen laguntzeko. ETAREN armagabetzea eta desagerpena eta lan komunerako programa sendoa Europar Batasunaren laguntza tekniko, politiko eta ekonomikoaz bideratu behar dira. Halaber, bide horretan ezinbestekoa da arrazakeriaren eta xenofobiaren aurkako Esparru-erabakia erabat aplikatzea; izan ere, beraren bitartez derrigorrezkoa da frankismoaren moduko erregimen totalitarioek Europan egindako krimenen apologia edo banalizazioa zigortzea, beraren biktimek ez baitute ez zuzenketarik, ez egiarik eta ezta justiziarik ere eskuratu.

## 4.-GURE LAN ETA ORDEZKARITZA

Horrenbestez, EAJ-PNVk konpromiso jakin bat hartzen du, alegia, Europako Parlamentuan egingo duen lana irekitasun eta gardentasun printzipioen arabera gidatzea, gure herritarren eta eragile sozial eta ekonomikoen parte-hartzea akuilatuz.

Ez da aski Europako legedia eta beraren instituzioak ezagutzea eta haien arauak ondo aplikatzea. Izan ere, horrez gain legedia eta politika lantzeko jardunean ere inplikatu behar gara. Badira tresnak horretarako, eta ezinbestekoa da tresna horiek indartzea, esfortzu horren erabilgarritasuna eta Euskadiri eta Europari ekartzen dizkien onurak erakutsiz.

Horregatik, gure herriko sektore sozial, ekonomiko eta kulturalekin sarean lan egiteko mekanika hobetuko dugu, Euskaditik europar eraikuntzari egiten zaion ekarpena errazteko eta hazkunde eta garapenerako aukerak identifikatzeko, europar programen eskutik. Orobat, era guztietako erakundeen sentsibilizazioa sustatuko dugu, Europako interes-taldeen erregistroan inskriba daitezen eta, hasieratik beretik, europar instituzioen lan-planak eta haien lehenengo proposamenak jaso ditzaten. Ezagutza-fluxu hori bideratzen jarraituko dugu, gure jarduera eta ekintza parlamentarioen bidez. Gure lanaren emaitzen neurketa sistematizatuko dugu, adierazle-sistema baten bitartez, eta egindakoaren azalpena emango dugu, gai horri buruzko eduki espezifikoak sare sozialetan txertatuz.

Aldi berean, EAJ-PNVk planteatzen du Europar Ekimen Herritarrak eskaintzen dituen aukeren erabilera adimentsu eta praktikoa, europar eztabaida toki mailan bultzatzeko mekanismo gisa, trukea eta mugaz gaindiko lankidetzea sustatzeko eta herritar guztiak europar gobernantzan inplikatzeko.



# B) PROPOSAMEN SEKTORIALAK

# EUSKADI GEHIAGO



eaaj  
pnv

# EUROPA BERRIAN

I AM  
BASQUE



## 1.- EKONOMIA

Orokorrean, adostasun handia dago esaterakoan 2007 urteaz geroztik pairatzen ari garen krisiak izaera sistemikoa duela. Are gehiago, aro aldaketaz hitz egin dezakegu eta, zalantzarik gabe, paradigma aldaketaz.

Krisiak Europar Batasuneko BPGan eta enpleguan izan duen eragin globalak ez du parekorik gerraren osteko garaian. Krisi ekonomiko eta finantzarioak eta, bereziki, banku-krisiak nabarmenki igoarazi dute EBko estatu batzuen zor publikoa. Ildo beretik, defizitaren helburuak lortzeko ahaleginek aurrekontuak saneatzeko prozesu bat abiatzea exijitu diete administrazio publikoei, gastu publikoa murriztearen eta diru-sarrerak handitzearen bidez, eta horrek presio fiskal handiagoa ezarri die herritarrei. Hala eta guztiz ere, aurrekontu-orekaren bilaketa horrek ez du berekin ekarri hazkundera eta enplegua bultzatzera zuzendutako neurririk.

Europar Batasunak -bereziki eurozonak- aurrekontuen egonkortasuna lehenetsi du beste edozeren gainetik, hazkundera eta enplegua bultzatuko zuen politika oro bazterrean utzita. Moneta bakarraren existentzia bera zalantzan egon da, harik eta Europako Banku Zentralak, batere ortodoxoa ez den neurri batez, sisteman likidezia sartzeari erabaki zuen arte, 2012an, euroak sinesgarritasuna berreskura zezan merkatuen aurrean. Operazio horrek doikuntza-neurriak ekarri zituen berekin, Europako Egonkortasun Mekanismoak aurretik exijitu zituenen modukoak. Kontua da neurri horiek lortu zutela merkatuak lasaitzea, euroa egonkortzea eta, aldi berean, interes-diferentzialak murriztea eta finantziario merkeagoa eskuratzeko bidea irekitzea.

Langabezia da, batez ere Europar Batasuneko hegoaldeko herrialdeetan, europar gizartea zigortzen duen dramaren adierazpen agerikoena: 26 milioi gizon eta emakume langabe daude Europar Batasunean (horietatik, 19 milioi eurozonan bizi dira), eta gero eta biztanle gehiago dago pobrezia edo bazterketa soziala pairatzeko arriskuan; horra hor ñabardurarik gabeko austeritate politikaren ondorioak. Beraren eragilea “*troika*” deritzana da (Europako Batzordea, Europako Banku Zentrala eta Nazioarteko Diru Funtsa), eta bere osaketagatik zehaztu gabe uzten ditu bere erabaki eztabaidatsuen erantzukizuna, eta, aldi berean, EB gobernatzen duten eliteen eta beraren herritarren arteko etena handitzen dute. Lanik gabeko hamalau milioi gazte dira horren froga agerikoena.

Nolanahi ere, ekonomia bost urtez geldirik egon ondoren –edo beherantz joan ondoren-, Europar Batasuna modu apalean hazten hasi da, eta aurreikustekoa da hazkunde hori datozen urteotan finkatuko dela. Badira, beraz, suspertze geldoa iragartzen duten argiak, eta pentsatzekoa da inflazioa kontrolpean mantenduko dela. Aldi berean, oreka makroekonomikoa itzultzen ari dela adierazten duten lehen zantzuak ere antzematen dira, eta badirudi defizit publikoak murrizten jarraituko duela. Aurreikuspen adostuak horiek izan behar dira hazkunde ekonomikora, enpleguaren sorrerara eta kohesio sozialera daraman bidearen abiapuntua.

Hiru dira Europar Batasunaren gobernantza ekonomiko berriaren zutabeak:

- Agenda ekonomikoa indartzea, Europar Batasunaren aldetik ikuskapen zorrotzagoa izanik. Hor sartzen dira Europa 2020 Estrategiaren lehentasunak eta helburuak, sei hiletik behin onartzen diren txostenetan agertu behar diren urteko zehaztapenak, eta, halaber, Euro Plusen aldeko Itunean parte hartzen duten herrialdeek hartutako konpromisoak eta politika ekonomiko eta fiskalen ikuskapen handiagoa, Europar Batasunaren aldetik, Egonkortasun eta Hazkunderako Itunaren baitan.
- Eurozonaren egonkortasunaren babesa, Europako Egonkortasun Mekanismoaren bitartez.
- Finantza-sektorearen saneamendua.

Europar Batasunak aurreikusten du gobernantza ekonomiko hori indartzea, Ekonomia eta Diru Batasuna (EDB) garatzea eta banka-batasuna ezartzea. Hala eta guztiz ere, susperraldi luze baten zimenduak ezartzeko erronkaren aurrean, ezinbestekoa da aurrekontu-orekak gastu eta sarrerei buruz ezartzen duen sistema hazkunderaren aldekoa izatea, gastu publikoaren kalitatea eta administrazioaren modernizazioa lehenetsiz. Aldi berean, lehentasunezkoa izan behar da ekoizpen-sistemara zuzendutako kreditu-fluxua berreskuratzea eta lehiakortasuna nabarmenki hobetzea, bai langabeziaren kontra borrokatzeko eta bai banaketa hobetzen duten politikak garatu ahal izateko.

EAJ-PNVk, Europako integrazio politiko eta ekonomikoa defendatzeko borondatea berretsiz, konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Batasun ekonomikoan sakontzea, monetaren alorreko aurrerapenak erritmo egokian jarritz, eraginkortasun handiagoaren bitartez hazkundearen bidera itzultzeko. Aurrera egin behar dugu industria eta energiari buruzko politika bateratuetan. Helburu horri begira, benetako europar espazio bat lortzen saiatuko gara ikerkuntzaren alorrean, eta kreditu-alor homogeen bat ere bai, banku-batasunaren eskutik eta merkatu arautuekin, lehiaren alorreko baldintzak ere homogeneizatuz. Azken batean, beraz, merkatu bakarra gehiago garatzearen alde azaltzen gara, zerbitzuen prestazio librea oztokatzen duten trabak eta monopolioak ezabatuz, alor ekonomiko lehiakor eta eraginkorra lortzeko modu bezala, oraingo langabezia-tasa handiak murriztu ahal izateko; aldi berean, bermatuko dugu Europar Batasunaren barneko lehia librean ez duela distortsiorik izango kanpoko fenomenoaren eraginez, hots, enpresek berrizatzeko eta eraginkortasun zein kalitate aldetik hobetzeko duten gaitasunarekin zerikusirik ez duten fenomenoaren eraginez.
2. Urte anitzeko finantza-esparru bat defendatzea, Batzordearen esku-hartze ahalmena, inizatiba eta beraren europar neurri eta programak ezartzeko ahalmena bermatzeko xedez.
3. Europar Batasuneko fiskalitatearen integrazio handiagoaren alde egitea. Zeharkako fiskalitatea gehiago sakontzearen alde agertuko gara, eta baita zuzeneko fiskalitatea gehiago harmonizatzearen alde ere. Sozietateen gaineko zergari dagokionez, zerga-oinarri finkatu eta harmonizatuaren alde lan egingo dugu bereziki, zerga-kenkarien tratamendu homogeenaren alde lan egiteaz batera.
4. Zerga-iruzurraren eta ustelkeriaren aurka borrokatzea, etikoki onartezinak direlako eta bateraezinak direlako harreman ekonomikoen funtzionamendu osasuntsuarekin. Alde horretatik, uste dugu kontzeptu berri batzuk sartu behar direla poliki-poliki fiskalitatean, alegia, produktuak, ondasunak edo zerbitzuak ekoizteko edo eskuratzeko erabiltzen diren baliabideen kudeaketaren eraginkortasunarekin zerikusia duten kontzeptuak, "Baliabideak modu egokian kudeatzea" deritzan txosten parlamentarioarekin bat etorriz. Funtsezkoa da, gainera, paradisu fiskalak eta banku-sekretua ezabatzea, zerga-iruzurra mugen gainetik jazartzea eta finantza-merkatua manipulatzeari lotutako ustelkeriaren kontra mugen gainetik zigorraren bidez jotzeko berriki onartu diren mekanismoekin jarraitzea, edo ustelkeria-operazioetan lortutako ondare ilegala ezkutatzeko edo erreskatatzeko ahaleginak eragozteak.
5. Finantza-transakzioen gaineko zerga Europar Batasun osoan ezartzearen alde agertzea, ekoizpen-ekonomiari laguntzeko; halaber, eurobonu-sistema bat defendatuko dugu, EBko inbertsio estrategikoak finantzatzeko ahalmena hobetzeko xedez.
6. Jarduera ekonomikoa bultzatzeko politiken aplikazioa sustatzea, enplegua sortzen laguntzeko, aurrekontu-orekaren helburuak betetzeko konpromisoari lotuta; halaber, sistema publiko saneatu eta eraginkorra mantentzearen alde azalduko gara, hazkunde luze eta iraunkorraren oinarria delakoan.

## 2.-ENPLEGUA

Europar Batasunaren estatistika bulegoaren arabera –Eurostat-, EBn badira 26 milioi gizon eta emakume langabe. Aldi berean, EBko Estatuetak langabezia-tasen arteko aldeak izugarriak dira: % 4,9 Austrian, % 5,1 Alemanian eta % 6,2 Luxenburgoren; kontrako muturrean, berriz, % 27,8 Grezian eta % 25,8 espainiar Estatuan. Euskadin, batez besteko langabezia-tasa % 16 da.

Iraupen luzeko langabeziak gora egin du EBko Estatu guztietan. Gora egin du langabezia estrukturalak, eta baita lan-indarraren eskaintzaren eta eskariaren arteko desfaseak ere, hala kalitate aldetik nola kuantitate aldetik. Gainera, lanpostuak suntsitzeaz gain, sortu edo mantendu diren enpleguak prekarioagoak dira eta gora egin du lanaldi partzialeko enpleguak.

Langabeziaren kontrako borroka bi helburu lortu behar ditu nahitaez: ekoizpen-sarearen lehiakortasuna nabarmenki hobetzea eta enpresak zein langileak aro berriko enpleguetara egokitzea, europar lan-merkatu integratuago bat eraikitzeaz batera.

- a) Ekoizpen-sarearen lehiakortasuna. Ikerkuntzak eta ezagutzak berrikuntza sustatzen dute. Kate horretan, eraginkorra izatea da ahalik eta epe laburrenean produktu berriak, merkatu-aukerak eta enplegua sortzea. Hori lortzeko, oinarritzat hartu behar ditugu gure alderdi indartsuak eta gure abantaila lehiakorak, bereizten gaituzten gaitasun zientifiko-teknologikoak, eta berrikuntzak ustiatzeko eta bere garapenean inbertitzeko gai den enpresa-sare lehiakorra. Horrela iritsiko gara gure aurrean irekitzen diren erronka eta aukerei lotutako merkatu-nitxoetara: baliabideen aprobetxamendu eraginkorra ondasun eta zerbitzuen ekoizpenean eta aldaketa erradikal bat paradigma energetikoan, ekoizpen-ekonomia eta mugigarritasuna karbonogabetzeko. Alor horretan, berrikuntza adimentsuko estrategien bitartez (RIS3), ekoizpen-eraldaketa sostengatzen dugu, enplegua eta ongizatea epe ertain eta luzera sortzeko xedez.
- b) Langileen egokitzapena. Lan-kostuen aldetik, Europa ezin lehia daiteke bere konkurrentzia globalarekin. Horregatik, beste arrazoi batzuen artean, soldaten jaitsiera ezin izan daiteke enplegu gehiago eta hobeak sortzen dituen tresna. Beharrezkoa da langileen kualifikazioa hobetzearen alde egitea, batez ere enplegua eskuratzeko zailtasun handiagoak dituztenen kasuan, hala nola gazteak, emakumeak, langabezia-aldi luzeko langabeak, desgaitasunak dituzten pertsonak eta immigranteak, hori lagungarria izango baita gizarte-inklusioa hobetzeko. Birziklapena, eguneraketa, egokikortasuna, hezkuntza- eta ekoizpen-sistemen arteko konexioa, hizkuntza-trebakuntza eta mugigarritasun handiagoa enplegarritasuna biderkatuko duten baldintzak dira.

Aldi berean, Europako merkatu bakarra lan-merkatu integratuago bilakatu behar da. Araudien eta gizarte-segurantzako sistemen sinplifikazioa eta harmonizazioa, pentsio-sistemak ildo beretik aurrera eramateaz batera, datorren legegintzaldian ezinbestean garatu behar diren neurriak dira.

Hain zuzen ere, Europar Batasunak pertsonen lan-trebetasunak hobetu nahi ditu *“Kualifikazio eta enpleguen agenda”* deritzan ekimenaren bitartez, Europa 2020rako Estrategiaren baitan, tresna hauek erabiliz: lan-merkatuaren modernizazioa eta gaitasunen garapena, laneko parte-hartzea handitzeko eta enpleguen eskaintza eta eskaria uztartzeko xedez, batez ere lan-mugigarritasunaren bitartez.

Europako Enplegurako Estrategiaren baitan, Europako Batzordeak Enpleguari buruzko Neurri Multzoa abiatu zuen 2012an, Estatuak beren enplegu-politikak indartzera bultzatzen dituzten neurriekin. Gainera, Egitura eta Inbertsio Funtsek inbertsioa, enplegua, gizarte-inklusioa eta giza kapitala sostengatzen dituzte, eta horrek zuzeneko eragina du Batasunaren hazkunderan. Beste alde batetik, Eskualde Garapenerako Europako Funtsa (EGEF) Europako eskualde eta hirietan inbertitzera zuzenduko da, eta ekonomia errealean inbertitzera ere bai. Xedetzat hartuko ditu ikerkuntza, IKTak, ETEak eta karbono-igorpen gutxiko ekonomia. Lehentasun horiek espezializazio adimentsurako nazio eta eskualde mailako berrikuntza-estrategietan jasoko dira (RIS3 estrategiak). Halaber, Globalizaziora Egokitzeko Europar Funtsa (GEEF) ere lagungarria izango da European lanpostuak sortzeko.

Euskadin, langabezia-tasa % 16aren ingurukoa da. Existitzen den enpleguaren defentsa helburu garrantzitsua da, baina horrek ez gaitu benetako lehentasunetik desbideratu behar: enplegu berriak – aro berriko enpleguak- sortzeko beharrezkoak diren baldintza eta pizgarrien sorrera. Horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzak 2014-2016 sasoirako abiatu duen Enplegua eta Ekonomia Suspertzeko Esparru Programa azpimarratu behar da, zeren helburu horien baitan kokatzen baita.

### Horri dagokionez, EAJ-PNVk konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Alor honetako bi jarduera-ardatz nagusiak defendatzea: hazkundera eta enplegua berreskuratzea, eta ekonomia suspertzea.



2. Langileak eta enpresak egokitzearen alde egitea, gaitasun berriak eskuratzen lagunduz eta lan egiteko forma berriak sustatuz, munduko globalizazio ekonomikoak eragindako aldaketa estrukturaleri erantzuteko.
3. Espezializazio Adimentsurako Estrategiaren (RIS3) ondorioz jarduera ekonomikoa eta enplegua gure herrialdearentzat sortzen laguntzen duten neurriak sustatzea.
4. Proiektuen garapena defendatzea enplegu-nitxo berrietan, batez ere baliabideen eta mugigarritasun iraunkorraren kudeaketa egokiarekin zerikusia dutenak, honako hauek bereziki azpimarratuz: energia alternatiboak (eolikoa, hidrogenoa, eguzkia, marea-energia), ekonomia berdea, material berrien inguruko ikerketa eta hondakinen tratamendua eta berrerabilera.
5. Enpleguaren sorrerarako eta lan-eskuaren eskarirako baldintza egokiak sortzen laguntzen duten neurriak defendatzea, hala nola lanpostu berriak sortzeko diru-laguntzak edo enplegu autonomoaren aldeko laguntzak.
6. Lan-merkatuaren dinamismoa eta inklusibotasuna hobetzen laguntzen duten neurriak bultzatzea, hala nola barneko malgutasunaren sustapena, horren bidez enpleguaren segurtasuna indartzeko, soldata duinak ezartzeko edo gaitasunetan inbertitzeko.
7. Europar Batasunaren benetako lan-merkatua ezartzera eta lan-mugigarritasuna hobetzera zuzentzen diren programak sustatzea, gobernantza enplegu-politiken alorrean finkatzeaz batera.

### 3.- GAZTEEN ETA EMAKUMEEN ENPLEGUA

Gazteen langabezia-tasa (25 urtetik beherakoak) inoizko mailarik handienara iritsi da. Europar Batasuneko gazte aktiboen % 23,2 lanik gabe dago, eta, hortaz, haien langabezia-tasa nagusiena baino bi aldiz handiagoa da. Alor horretan ere badira alde nabariak EBko estatuen artean, gazteen langabezia-tasari dagokionez: alde batetik, tasa hori % 7,4 da Alemanian eta % 8,9 Austrian; kontrako muturrean, berriz, Grezian % 59,2 da, Espainian % 54,3 eta Kroazian % 49,2.

15 eta 29 urte bitarteko 14 milioi gazte inguruk ez dute lan egiten, ez dute ikasten eta ez dute inolako prestakuntzarik jasotzen. Fenomeno tamalgarri horrek Europa osoan urtean duen kostua, transferentzia sozialetan, eskuratu gabeko sarreretan eta bildu gabeko zergetan neurtuta, BPGaren % 1,2aren ingurukoa da (153.000 milioi euro).

Gazte-enplegua sustatzeko, Europar Batasuneko Estatuak Gazte Bermea deritzan gomendioa onartu dute. Beraren bitartez, konpromiso hau hartzen dute: lanpostu bat, heziketa etengabeko proposamen bat, praktika-aldi bat edo prestakuntza proposamen bat eskaintzea 25 edo 30 urtetik beherako gazte guztiei, beren ikasketak amaitu badituzte edo 4 hilabetez baino gehiagoz langabezian egon badira.

Euskadin, 3 langabetatik bat 35 urtetik beherakoa da. 16 eta 29 urte bitarteko biztanleen langabezia-tasa % 29,5 da. Eusko Jaurlaritzak 2014-2016 sasoirako abiatu duen Enplegu eta Suspertze Ekonomikorako Esparru Programaren barneko Enplegu Planaren sei programetako bat gazteen enplegua sustatzera zuzentzen da.

Horri dagokionez, EAJ-PNVk konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Gazte Bermearen garapena sostengatzea, prestakuntza onena duten belaunaldien ezagutza ekoizpen-sistemari eramateko eta kolektibo hori ekintzailtzaren eta enpleguaren munduan behin betiko integratzeko.
2. Gazteen enplegarritasuna eta laneratzea sustatzen dituzten neurriak sostengatzea, dela autoenplegua bultzatzen duten neurrien bitartez, dela gazteak eta enpresak elkarrengana gehiago hurbiltzearen bitartez. Gisa berean, enpresako prestakuntzaren aldeko ekimenak bultzatzeko konpromisoa hartzen dugu, edo lehenengo lan-aukera eskaintzera zuzendutako programak eta laguntzak ezartzeko konpromisoa.

3. Gazteen prestakuntzaren bikaintasuna lortzen lagun dezaketen ekimenak sostengatzea, praktika-aldien kalitatea hobetzeaz batera. Ekimen horien artean, lanbide heziketaren hobekuntzarako jadanik eratuta dauden edo eratu litezkeen foroak bultzatuko ditugu; izan ere, Euskadi horren erreferentea da European.
4. Lanbide heziketa eta goi mailako heziketa sektore industrial eta produktiboaren beharrekin hobeto uztartzen laguntzea; halaber, Erasmus moduko truke-programak sustatzea, globalizazioaren eta mugigarritasunaren erronkari aurre egiteko eta bokazioak alor tekniko-zientifikoan sustatzeko.
5. Lan-mugigarritasunaren aldeko ekimenak sostengatzea, gazteek errazago izan dezaten enplegua aurkitzea edo trukeak egitea Europar Batasuneko beste herrialde batzuekin: Erasmus programa bat enpleguaren eta lanbide heziketaren alorrean. Modu erradikalean indartzea gure gazteen hizkuntza-gaitasunak hobetzera zuzendutako jarduerak.
7. Emakumeen talentua ekoizpen-sisteman txertatzearen alde lan egitea, irmotasunez, Europako emakumeek prestakuntzaren alorrean egindako esfortzuekin eta horrek dituen ondorio onuragarriekin bat etorriz. Alde horretatik, gure egiten dugu emakumeak administrazio-kontseiluetan sartzeari buruzko zuzentaraua.

## 4.- BERDINTASUNA: EZINBESTEKO BETEKIZUNA DEMOKRAZIARENTZAT ETA LEHIAKORTASUNARENTZAT

Erromako Itunak, 1958an, gizonen eta emakumeen arteko soldata-berdintasuna txertatu zuen Europar Batasunaren jatorrizko helburuen artean. Harrezkero, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunaren sustapenak hierarkia irabazi du EBko legedian, gero eta neurri handiagoan; errealitatea, baina, astiroago joan da.

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna demokrazia kontua da, funtsezko eskubideen eta justiziaren kontua, baina horrez gain inbertsio bat ere bada. Europarentzat aldarrikatzen dugun garapen iraunkor, integratzaile eta adimentsuak eskura dagoen talentu guztia behar du, eta horren zati handi bat femeninoa da. Gaur egun, European, goi mailako titulazioa duten emakumeak gizonak baino gehiago dira. Ezagutza eta prestakuntza izateaz gain, emakumeek beste gaitasun batzuk ekartzen dizkiote ekonomiari, batez ere kudeaketa emozionalaren alorrean. Hamarka azterlanek frogatzen dutenez, emakumeak kudeaketa ekonomikoan sartzeak eraginkortasuna hobetzen du eta errentagarritasuna ekartzen du.

Errealitate hori ez dator bat emakumeek erabakitze-gune nagusietan okupatzen duten lekuarekin, bai instituzio publikoen alorrean eta bai jarduera pribatuaren eremuan. Horregatik, ezinbestekoa da arazo horri aurre egitera zuzendutako esku-hartze irmo bat.

Gainera, desberdintasuna eta diskriminazioa genero-indarkeriaren jatorrian daude –gure garaiko gaitz nagusietako bat-. Europar Batasunak berriki egin duen azterlan baten arabera, hirurogei milioi emakumek baino gehiagok pairatu dute indarkeria edo erasoren bat, dela etxean dela lantokian. Europa mailan, ez dago arazo horren dimentsioa neurtzeko estatistika agregaturik: estatu batzuetan, kontu pribatua jarraitzen du izaten.

Balioen eremuko arazo baten aurrean gaude, eta politika integral batez erantzun behar diogu; bertan, badira erronka globalak, eta tokiko ekintzarako aukerak ere bai. Erronka horri arrakastaz heltzeko modu bakarra da maila indibidual eta sozialean sendo errotuta dauden estereotipoak eta jokabideak aldatzea.

Euskadi europar erreferentea da berdintasun-politikan. Izatez, Emakunde ordezkaturik egon da Europako Berdintasun Kontseiluaren Aholkularitza Batzordean. Beraren urte anitzeko estrategiak, batez ere 2005eko Berdintasun Legeak, bideak markatu dituzte eta oso erabilgarriak izan dira gure esku-hartzea alor horretan modelatzeko, europar instituzioen aurrean.

### Horrenbestez, EAJ-PNVk konpromiso hauek hartzen ditu:

- 1.- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna balio horizontal bihurtzeko ahaleginetan jarraitzea, Europar Batasuneko politika guztietan.
- 2.- Estatistikak homogeneizatzea eta berdintasunaren alorreko jardunbide egokiak konpartitzera zuzendutako ekimenak proposatzea eta sostengatzea, Europar Batasuneko estatu guztietan. Arreta berezia zuzentzea genero-indarkeriari buruzko datuei.
- 3.- Genero-indarkeriari buruzko estrategia integral bat planteatzea, Europa mailan, gutxieneko estandarrak sartuz biktimak babesteko politiketan.
- 4.- Biktimentzako arretari buruzko Zuzentaraua gure legedian arin txertatzearen alde lan egitea; bertan, gaitz hori pairatzen duten emakume eta haurrengana zuzendutako xedapen espezifikoak jasotzen dira.
- 5.- Emakumeak erabakitze-eremuetara iritsi daitezkeela bermatzeko eta generoen arteko oreka hobetuz joateko ezartzen diren neurriak sostengatzea, hala alor publikoari dagokionez nola alor pribatuari dagokionez. Bai hauteskunde-kuotei eta bai emakumeen presentzia europar enpresetako zuzendaritza-organoetan hobetzeko zuzentarauari.
- 6.- Europar ekintza koordinatu bat garatzea genero-estereotipoen aurkako borrokan, batez ere publizitatearen, hedabideen eta hezkuntzaren eremuetan. Arazo hori prebenitzeko irizpideak ezartzea EBko estatu etako hezkuntza-sistemetan.
- 7.- Pertsonen trafikoan diharduten sareak jazartzeko europar programa bat sostengatzea, batez ere sexu-esplotazioan aritzen direnen aurka aritzeko. Legegintzaldi hau amaitu baino lehen, jarrera koordinatu bat lortzea prostituzioaren eta sexu-zerbitzuen publizitatearen arazoari aurre egiteko.
- 8.- Gobernantza maila guztiak integratzea genero-berdintasunaren aldeko erabakitze-prozesuetan eta neurrien inplementazioan, goranzko zein beheranzko faseetan.

## 5.- EUROPA 2020

Europar Batasuna lehiakortasun krisi sakona pairatzen ari da. Ez da gertaera berria, baina oraingo koiuntura ekonomikoan funtsezkoa da egoera horri buelta ematea, hazkundearen bidea berriz ere hartu ahal izateko. Europar Batasunak Lisboako Estrategia deritzana abiatu zuen iragan hamarkadan; helburu nagusia zen Europar Batasuna munduko ekonomiaren lehenengo postuan jartzea, ezagutza oinarritzat hartuta eta kalitatezko enplegu maila handiak eskuratuz. Hamar urterako plan bat zen, eta laster ikusi zen ezinezkoa zela ezarritako helburuak lortzea, konpromiso kuantifikaturik ez zegoelako eta eskualdeak baztertuta geratu zirelako programak inplementatzeko prozesutik.

Lisboako Estrategiaren berrikuspena ere ez zen gai izan norabidea artezteko, baina baliagarria izan zen egindako errakuntzez konturatzeko. Esperientzia hori erabakigarria izan da gobernantzarako tresnen diseinurako, hala nola europar seihilekoa. Gainera, Europa 2020 Estrategia sortzera eraman du.

Europak hazkunde adimentsu, iraunkor eta integratzailea behar du krisia atzean uzteko eta hazkundera eta kalitatezko enplegua sortzen duen ekonomia lehiakorragoaren baldintza egokiak sortzeko. Horri begira, inbertsio eraginkoragoak aurreikusten dira hezkuntza, ikerkuntza eta berrikuntzaren alorretan; aldi berean, karbono gutxiko ekonomia eta industria lehiakorra sustatzen dira. Horrekin batera, enplegua sortu nahi da eta pobrezia murriztu. Esfortzu hori alferrikakoa da ez badira kontuan hartzen instituzioen ezagutza, inplikazio eta konpromisoa eta pertsona guztien talentua.

Estrategiak 2020 urtean bete behar diren bost helburu ezarri ditu, alor hauetan: enplegua, ikerkuntza, klima-aldaketa eta energia, hezkuntza eta pobrezia murrizketa. Bost helburu horiek estatu mailan eskuratu beharreko helburuetan zehazten dira, eta zortzi adierazleren bitartez kuantifikatzen dira, alegia: enplegua:

I+G; CO2 igorpenen murrizketa; energia berriztagarriak eta eraginkortasun energetikoa; eskola-uztea eta goi mailako hezkuntza; eta pobrezia.

Europar Batasuneko esparru-aurrekontuaren baitan gastuarentzat definitu diren lehentasunak (2014-2020 Urte Anitzeko Finantza Esparrua) Egitura eta Kohesio Funtsen eta beste programa batzuen bidez zehaztuko dira; bada, lehentasun horien arabera, bilioi bat euro injektatuko dira ekoizpen-ekonomian, hazkunde iraunkorra, enpleguaren sorrera eta lehiakortasuna bultzatzeko. Horrez gain, Europako Batzordeak kudeatzen dituen programa batzuek diru-laguntzak eta beste finantza-tresna batzuk eskaintzen dituzte Europa 2020 Estrategia betetzen laguntzen duten eragileentzat; programa horiek eremu hauetakoak dira: enplegua eta gizarte-gaiak, I+G, hezkuntza eta enpresak.

Enpleguaren alorrean, lortu beharreko helburua da % 75eko enplegu-tasa lortzea 20 eta 64 urteko bitarteko emakume eta gizonentzat, 2020 urtea baino lehen, jende gehiagok lan egin dezala lortuz, batez ere prestakuntza maila txikiko emakumeak, gazteak eta adineko pertsonak eta immigrante legalak.

Ikerkuntzaren eremuan, helburua da Europar Batasuneko BPGaren % 3 I+Gan inbertitzea; klima-aldaketari eta iraunkortasun energetikoari dagokionez, berriz, asmoa da berotegi-efektuko gasen igorpenak murriztea, energia berriztagarriak areagotzea eta eraginkortasun energetikoa hobetzea.

Hezkuntzaren eremuan, helburua da emaitza akademiko hobeak lortzea; eskola uzten dutenen tasa % 10etik behera eramanez; 30 eta 34 urte bitarteko pertsonen % 40k –gutxienez- hirugarren mailako ikasketak (edo horren baliokidea) amaitu ditzala lortuz.

Pobreziaren eta gizarte-bazterketaren aurkako borrokari dagokionez, helburua da gutxienez 20 milioitan murriztea pobrezia edo gizarte-bazterketako arriskuan dauden pertsonen kopurua.

Ikerkuntza eta berrikuntzarako funtsak eskuratzeko eta erabiltzeko bidea hobetzea lagungarria izan behar da ideiak balio erantsiko asmakizun eta produktuetan islatzeko, horren bidez hazkunde eta enplegua sortuz; merkatu digital bakarra lortzea lagungarria izan behar da sarean lan egiteko eta ideiak zein proiektuak trukatzeko. Aldi berean, merkatu berriak oraingo erronkei erantzuten dieten produktu eta zerbitzuen eskutik etorriko dira, hazkunde iraunkorreko testuinguru batean; horrek eskatzen du baliabide guztiak eraginkortasun handiagoz erabiltzea, batez ere energetikoak eta mugigarritasunarekin zerikusia dutenak.

Hori guztia lortu ahal izango da baldin eta hezkuntza-sistemen emaitzak nabarmenki hobetzen badira, laneratzeko bidea eskainiz gazteei, emakumeei eta bazterketa arriskuan dauden kolektiboek. Gisa berean, beharrezkoa izango da enpresa-ingurunea hobetzea, batez ere ETEena, nazioarteko bokazioa duen oinarri industrial sendo eta iraunkor baten alde lan egiteaz batera. Testuinguru horretan, lan-gaitasunen hobekuntza eta lanpostuen eskaintza eta eskaria elkarri egokitzea funtsezko faktoreak izango dira gai anitzeko prozesu honetan.

Euskadi Europa 2020 Estrategia inplementatzen ari da zenbait tresnaren bitartez, hala nola Enplegu eta Ekonomia Suspertzearen aldeko 2014-2016 Esparru Programa edo espezializazio adimentsurako RIS3 Estrategia, hots, lurralde-eraldaketa ekonomikoaren agenda integratua.

2020 Estrategiaren baitan, 2020 Horizonte Plana, enpresei laguntzeko eta finantzatzeko neurriak, talentua sortzeko eta sisteman integratzeko tresnak eta energiari eta baliabideen kudeaketari buruzko politika iraunkorragoa europar apustuaren gako bihurtu dira, garapen adimentsu, iraunkor eta integratzailearen erreferentzia bilakatzeari begira.

### Horri dagokionez, EAJ-PNVk konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Benetako merkatu digital bakarra aprobetxatzea ahalbidetzen duten azpiegiturak sortzeko lagungarriak diren neurriak sostengatzea.
2. Ikerkuntza eta garapenerako finantziarioa eskuratzeko bidea hobetzen duten neurriak defendatzea, eta gauza bera egitea ideia berritzaileak hazkundera eta enplegua sortzen dituzten produktu eta zerbitzuetan islatzen direla bermatzen duten neurriekin.

3. Hezkuntza-sistemaren emaitzak hobetzen laguntzen duten neurri guztiak defendatzea, eta baita gazteak eta haien talentua lan-merkatuan eta ekoizpen-sisteman txertatzen laguntzen dutenak ere. Haien ekarpena ezinbestekoa da gizarte aurreratuago eta integratuago bat lortzeko.
4. Baliabideen erabilera eraginkorarekin konprometituta dagoen hazkunde eredu bat defendatzea, eta, bereziki, karbono gutxiko ekonomiarantz eraman gaitzaketen neurriak aldezte. Alde horretatik, gure lana gidatuko duten irizpideak hauexek izango dira: garraioen modernizazioa eta multimodalitatea, eraginkortasun energetiko handiagoa eta energia-iturri alternatiboak gero eta gehiago erabiltzea, batez ere energia berriztagarriak.
5. Oinarri industrial sendo eta iraunkorraren garapena sostengatzea eta enpresa-ingurunearen hobekuntza defendatzea, arreta berezia zuzenduz ETEei, haien dimentsionamenduari eta haien internazionalizazioari.
6. Lan-merkatua modernizatzen eta gaitasun berriak garatzen laguntzea, lan-merkatuko parte-hartzea handitzeko eta enpleguen eskaintza eta eskaria hobeto uztartzeko, gizarte-bazterketa pairatzen duten edo pairatzeko arriskuan dauden kolektiboen babesa ahaztu gabe.
7. Estatu azpiko entitateen –estatu propiorik gabeko nazioak eta estatuak- parte-hartze handiagoa defendatzea 2020 Estrategiaren politikak betetzeko eta konkretatzeko xedez eratzen diren eztabaida- eta erabakitze-foroetan eta politika horien inplementazioan.

## 6.- EUROPAKO POLITIKA INDUSTRIALA

Europar Batasuneko politika industrialaren helburua gure lehiakortasuna hobetzea da, ekonomia hazkunde ekonomikoaren bidera berriz eramateko eta enpleguaren sorrera bultzatzeko, industriaren pisuak Barne Produktu Gordinaren % 20ra iritsi dadin, batez beste, 2020 urtean. Politika honek izaera horizontala du; gainera, industriak Europar Batasuneko lehiakortasun globalari egiten dion ekarpenaren garrantzia ikusita, datozen urteotan aurrera jarraituko da garapen faktore hau Europar Batasuneko beste politika batzuekin (merkataritza, barneko merkatua, ikerkuntza eta berrikuntza, enplegua, ingurumenaren babesa, eta abar) integratzeko bidean. Halaber, Europa mailan beste jarduera ugari daude aurreikusita industria modernizatzeko: berrikuntzarako inbertsioak, teknologia berriak, kualifikazioak eta finantziarioak eskuratzeko bideak, hori guztia europar funts espezifikoen bidez azkartuta.

Eskualdeko eta tokiko agintaritzak dira beren lurraldeko egitura ekonomiko eta industrialaren ondoen ezagutzen dutenak. Horregatik, rol garrantzitsua jokatu behar dute ekoizpen-ekonomiaren eta enplegua sortzearen aldeko politiken diseinuan eta aplikazioan. Hori guztia kontuan hartuta, Europako politika industrialaren parte-hartze aktiboari ireki beharko zaio, “eragile berri” hauen goranzko eta beheranzko faseetan; halaber, eskualde-espezializazioa bultzatu beharko du eta hazkunde industrial sendoko sektoreen abantaila konparatiboa sustatu.

ETEak dira europar ekonomiaren bizkarrezurra. Europar Batasuneko enpresa guztien % 99 dira, hiru enplegutatik bi sortzen dituzte sektore pribatuan, eta Europar Batasuneko enpresek guztira sortzen duten balio erantsiaren erdia baino gehiago ekartzen dute. Horregatik, legegintzaldi honetan ALDEk enpresa txiki eta ertainaren alde bultzatu duen Europar Agiriarekin konprometitu gara, haien berrikuntza-gaitasuna hobetzen duten neurri guztiekin bat egiteko; horrekin batera, ETEen eta zentro teknologikoen arteko lankidetzaren estua sostengatuko dugu. Konpromisoaren osagai bat da burokrazia eta arauen konplexutasuna murriztea, ETEek europar funtsak aprobetxatu ahal izan ditzaten. Gisa berean, Inbertsioen Europar Funtsaren kapitala handitu dezala eskatzen zaio Inbertsioen Europar Bankuari, ETEen aldeko jarduerak zabaldu ditzen.

Europar politika industrial koherenteak, gainera, nabarmenki bultzatu beharko ditu ekoizpen-testuingurua eta ekintzailetzaren zein berrikuntzaren katalizatzaileak. Funtsezkoenak telekomunikazioak, finantza-zerbitzuak eta osasuna dira, eta horien guztien gaitasun politikak energetiko komun bat, zeren hori izan gabe oso zaila baita benetan europarra den industriad hitz egitea.

Industriak gure BPGan duen pisu esanguratsua gorabehera, ekintzailtza Europako batez bestekoaren azpian dago Euskadin.

### Horri dagokionez, EAJ-PNVk konpromiso hauek hartzen ditu:

- 1.- Gure eragileak Europatik sustatu nahi diren korrante ekintzaileei atxikitzea bultzatzen dituzten neurriak sostengatzea, epe ertain eta luzera etorkizun ona izan dezaketen jarduera ekonomiko berriak lehenetsiz.
- 2.- Kultura ekintzailearen balioak sustatzeko neurriak sostengatzea, enpresak sortzeko fase bakoitzean, arrakasta saritzeko eta sustatzeko ekintzailearen eta enpresariaren ahalegin eta irudi sozialaren bitartez.
- 3.- Biztanleriaren sektore batzuen ekintzailtza-nahia zapuztu ditzaketen oztupoak murrizten edo ezabatzen laguntzea, hala nola enpresari bilakatu nahi duten emakumeen kasuan.
- 4.- Europatik maila anitzeko estrategia bat bultzatu dadila aldarrikatzea, beraren bitartez uztartu ahal izateko ETEen aldeko tresnak maila instituzional guztietan, balizko bazkideak garatzeari begira, horren bidez ahaleginak batzeko eta/edo baliabideak konbinatzeko, enpresen dimentsionamendua indartzeko eta, horren bidez, merkatu bakarrak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzeko.
- 5.- ETEak finantzatzeko programa berrien garapena sostengatzea, diruaren prezioak Eurozonan duen diferentzialak enpresen arteko lehian duen ondorio kaltegarria ezabatzeko beharra kontuan hartuta.
- 6.- Informazioaren hobekuntza sustatzea, europar programetara iristeko tramiteak sinplifikatzea eta programa horien kudeaketa-unitateak erabiltzaileengana hurbiltzea.
- 7.- Gizarte- eta ingurumen-*dumpingaren* aurrean zero tolerantzia determinatzen duten neurriak hartzea, horren bidez europar produktuak babesteko *dumping* forma horietan oinarritutako kanpo-konkurrentziaren aurrean.
- 8.- Aliantza industrialen eraketa sustatzea sektore estrategikoetan, elkarren indarra aprobetxatzeko.
- 9.- Gizarte-ekonomiak ekoizpen-sistemari ekartzen dizkion balioen alde egitea eta euskal espezifikotasun hori babestea eta sustatzea, zeren deslokalizaizoaren aurka prebenitzen baitu, ekintzailtzaaren kontzeptua gizarteratzeaz eta erantzunkidetasuna akuilatzeaz batera.

## 7.- IKERKUNTZA, GARAPENA ETA BERRIKUNTZA

Finantziarioa urria da oraingo testuinguru ekonomikoan, eta, hortaz, inoiz baino beharrezkoagoa da teknologia aurreratuak sustatzen dituzten europar ekimenak sostengatzea, balio erantsi handiko sektoreetan, horren bidez Euskadik lekua izan dezan XXI. mendeko abangoardian. Gure bizi-maila produktu, zerbitzu, enpresa eta gizarte-prozesuen berrikuntza sustatzeko gaitasunaren mende egongo da. Horretarako, ezinbestekoa da ikerkuntza, garapen eta berrikuntza inbertitzea, eta badirudi hori dela teknologia sektorial berriak garatzeko bide bakarra. Ikerkuntza eta berrikuntza lagungarriak dira hazkunde ekonomikorako eta ongizate sozial eta indibidualerako; gainera, sektore estrategiko bat da krisiarentzako irtenbide gisa eta Europa eta Euskadirentzako hazkunde eredu gisa.

Europar Batasunak azken urteotan pairatu izan dituen lehiakortasun arazoak gainditzeko xedez, asmoa da Egitura Funtsak eta ikerkuntza, garapen eta berrikuntzara zuzendutako Funtsak Europa 2020 Estrategiaren helburuekin uztartuta diseinatzea. Kontua da Europar Batasunaren ekonomia orientatzea, ezagutza eta balio erantsiaren sorrera abiapuntutzat hartuta, erronkei eta behar sozialei modu iraunkorrean erantzuteko. Azken batean, kontua da hazkunde adimentsu, iraunkor eta berritzailea ahalbidetzea.

Era horretan, ikerkuntza eta berrikuntzari buruzko europar ekimenek –batez ere Ikerkuntza eta Berrikuntzarako Esparru Programaren bitartez bideratuak, 2020 Horizontea- ildo estrategiko konkretuetan islatzen dituzte erronka horiek. Aurrekontu-zuzkidura (70.200 milioi euro) proposatutako nahi handinahien parean dago:

hazkunde iturri berriak, ezagutzaren eta berrikuntzaren gizartea eta, azkenik, klima-aldaketaren aurka borrokatzen den ekonomia iraunkorra. Finantziario-ildo horiek funtsezkoak izango dira gure ekonomiarentzat, bai Euskadi europar politiketan modu aktiboan kokatzeko eta bai susperraldi ekonomikorako, merkatu globalean lehiakorak izateko eta enplegua sortzeko eta mantentzeko.

Euskadik lagundu behar du teknologikoki eta sozialki berritzaileagoa den Europa lortzen, Europa Soziala bere horizontean mantentzen duen bitartean, herritarren ongizatea lehenesten duten balioak oinarritzat hartuta. Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemak bat egin behar du lehentasun horiekin, oinarritzako ikerkuntza eta ikerkuntza aplikatua sektore estrategikoetan bultzatuz. Energia, manufaktura aurreratua eta *mikro, nano eta bio* teknologiak funtsezkoak izango dira euskal I+G+b-ren hazkunde ekonomikorako, datozen urteotan.

Gure ekoizpen-sarearen eta gure gizartearen berezko lehiakortasun-faktoreetan eta puntu sendoetan oinarritutako apustu estrategiko hori, ikerkuntza, garapen eta berrikuntzaren alorrekoa, fokalizazio-merkatuetara zuzendu behar da, hazkundera sortu nahi badugu. Erantzun hori behar dute, hain zuzen ere, bilakaera demografikoak eta biztanleriaren zahartzeak, baliabide urrien agorpenak, politika energetiko berriak eta klima-aldaketaren aurkako jardunak.

Gainera, euskal ekoizpen-sarearen konfigurazioa ikusita –enpresa gehienak ETEak dira, Europan bezala-, lehentasunezkoa da beraren konpromiso berritzailea akuilatzea. Hala, gure ETEak eskari teknologikoaren eragileak izango dira, puntako sistema zientifiko batean parte hartuz eta gaitasun handiagoz lehiatuz merkatu globalean.

#### Horri dagokionez, EAJ-PNVk konpromiso hauek hartzen ditu:

- 1.- Ezagutzaren eta teknologiaren alde egitea –oinarritzako ikerkuntza eta ikerkuntza aplikatua-, beraren emaitzak produktuetara eta merkatura arinago helarazten dituzten programen alde egiteaz batera, hori guztia epe ertain/luzera aberastasun eta gizarte-ongizate handiagoa lortzeko tresna gisa, bai Euskadirentzat eta bai Europarentzat.
- 2.- Euskadik hartzen dituen Espezializazio Adimentsuko Estrategiak europar eskalan eta eskala globalean garatzeko lagungarriak diren neurri guztiak bultzatzea eta defendatzea.
- 3.- Europar Batasuneko instituzioekin modu bateratuan programatzeko neurriak sustatzea eta defendatzea, horren bidez koherentzia handiagoa emateko eta sinergiak lortu ahal izateko, hazkunde eta enpleguarentzat lagungarria den europar esparru lehiakor eta eraginkorra lortzeko ikerkuntzaren alorrean.
- 4.- Gisa berean, norabide berean doazen lankidetzaren publiko-pribatuko formulen alde egitea.
- 5.- Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sistemaren eta maila zientifiko eta teknologiko handiko bazkideen arteko lankidetzaren maila igotzea, bai EBko beste estatu batzuetakoak badira eta bai herrialde atxikietakoak eta hirugarren herrialdeetakoak badira, kontuan hartuta hori oso interesgarria dela ezagutza eskuratzeko eta gure ekoizpen-sarearen internazionalizazioan aurrera egiteko.
- 6.- Azken urteotan lortutako itzulkin ekonomiko garrantzitsuak mantentzeko eta hobetzeko lan egitea. Hala eta guztiz ere, baliabide horien finantza-garrantzia ukatu gabe, nabarmentzekoa da proiektu finantzatuaren garrantzia, zeren lagungarriak baitira ezagutza eta balioa sortzeko.
- 7.- Euskal parte-hartzea handitzeko lagungarriak diren neurri eta ekintza guztiak sostengatzea, bai Europar Batasuneko programazio batzordeetan, bai ekimen eta plataforma teknologiko publiko-pribatuetan – euskal eragileen aldetik-, eta bai Europar Batasuneko Ikerkuntza eta Berrikuntza programetan.

- 8.- Euskadiko eragile eta instituzioen publikoen parte-hartzea defendatzea alor honetan abiatu litezkeen ekimenetan: Knowledge Innovation Communities, European Innovation Partnerships eta antzekoak.
- 9.- Euskal korporazio teknologikoak zientzia eta teknologiaren europar sarean integratzearen alde lan egitea.

## 8.-GARRAIOAK ETA HERRILANAK

Garraioei buruzko politika komunaren helburua da oztupoak ezabatzea EBko estatuen arteko mugetan, horren bidez pertsona eta ondasunen zirkulazio libreari laguntzeko. Azken batean, asmoa da garraioen barne-merkatua gauzatea, garapen iraunkorra bermatuz, laguntza ekonomikoko programen kudeaketa jorratuz, espazioa menderatuz eta segurtasuna handituz; gainera, asmoa da nazioarteko lankidetzara sustatzea.

Beste alde batetik, Europar Zeharreko Sareen helburua da Europako eskualdeak eta sare nazionalak bateratzea, azpiegitura moderno eta eraginkor baten bitartez. Horrela bermatuko da pertsona, merkantzia eta zerbitzuen zirkulazioa, hori funtsezkoa baita merkatu bakarraren funtzionamendurako. Hori lagungarria izango da ekonomia-, gizarte- eta lurralde-koehesioaren helburuak lortzeko. Lurraldearen antolamendu koherenteak azpiegituren sare estatalen interkonexioa eta interoperabilitatea eskatzen ditu ezinbestean.

Europar Zeharreko Sareek hiru sektoretan dihardute: garraioa, energia eta telekomunikazioak. Edonola ere, Europa 2020 Estrategiarekin bat etorritik, garraioen politika iraunkorra lortzeko modu bakarra mugigarritasun politiketan sakontzea da. Bada, bestalde, satelite bidez nabigatzeko sistema bat, Europar Batasunak eta Europako Agentzia Espazialak garatua, GPS sistema amerikarraren monopolioari aurre egingo diona. Galileo sistemak arintasuna, eraginkortasuna eta segurtasuna bermatuko dizkie garraioei Europar, eta oso ekarpen erabakigarria egingo dio mugigarritasun politikari.

Oraingo garraio sistemaren saturazioak Europako Barne Produktu Gordinaren % 1aren adinako kostua sortzen digu, hots, Europar Batasunaren urteko aurrekontuaren adinakoa. Logistika eta garraioaren kostuak zama astuna dira gure enpresa, kooperatiba eta ekintzaileen lehiakortasunerako. Oraingo garraio bideek berokuntza globalean duten eragina estu lotuta dago erregai fosilekin duen mendetasunarekin. Garraioak bere behar energetikoen % 96 betetzen du, gaur egun, gero eta urriagoa den eta egoera ezegonkorrean dauden herrialdeetatik datorren iturri horrekin. Oraingo kontsumoaren erritmoei eutsiz gero, ezinezkoa da klima-aldaketa gelditzea, eta faktura energetikoa ordaintzea ere ezinezkoa izan liteke.

Horregatik, garraioa funtsezko faktorea da Europako lehiakortasunarentzat. Gainera, hazteko eta enplegua sortzeko ahalmen handia duen sektore bat da, 2020 printzipioei lotuta, batez ere ezagutza eta iraunkortasunari lotuta. Gero eta eskari handiagoa izango dugu alor horretan. 2050ean, Europako merkantzien mugimendua % 80 handiagoa izango da eta bidaiariena % 50 handiagoa. Garraioaren industriak 10 milioi langile ditu gaur egun, osoko enpleguaren % 4,5 da eta barne produktu gordinaren (BPG) % 4,6. Garraiorako materialaren ekoizpenak % 1,7 gehitzen dio BPGari eta % 1,5 enpleguari. Mugigarritasun iraunkorrarekin zerikusia duten produktu eta zerbitzuek 300 mila milioi euroko merkatua izango dute munduan 2020an (gaur egun, 200 mila milioi euro dira).

Erronka horiei aurre egiteak aukera erraldoia eskaintzen du berrikuntzarako eta teknologia berrien aplikazio intentsiborako, bai ibilgailuetan eta propulsiio-elementuetan eta bai azpiegituretan eta merkantzia eta bidaiarien mugimenduaren kudeaketan. Eta europarren eguneroko bizitza hobetzeko ahalmen izugarria ere bai.

Euskadi oso ondo kokatuta dago etorkizuneko sektore batzuetan, hala nola trenbide-materialaren eraikuntzan eta horri aplikatutako berrikuntzan, eta garraio-sistemen kudeaketa integratuz: itsasontzien eraikuntza, aeronautika eta energia. Aukera handiak daude gai horietan eta mugigarritasuna kudeatzeko tresnetan



espezializatzen diren ekintzaile eta berritzaileentzat. Erronka da garraiobideen kudeaketa eta elkarren arteko lotura uztartzea eta multzo hori mugigarritasun sistema integratu bihurtzea. Jokaleku horretan badira aukerak erabiltzaileentzat eta ekintzaileentzat.

### Horri dagokionez, EAJ-PNVk konpromiso hauek hartzen ditu:

- 1.- Garraio-politika kontzeptuaren ordez mugigarritasun-politika kontzeptua sustatzea, garraio-sistema, ibilgailu eta azpiegitura guztiak kudeaketa sistema adimentsu batean integratzeko eta horren bitartez hobetzeko eraginkortasuna, zerbitzuaren kalitatea, kostuak, iraunkortasuna eta erabiltzaileentzako prestazioak.
- 2.- Oinarritzko Galileo satellite-sistemaren prestazioak osorik garatzea, Europako mugigarritasunaren kudeaketa adimentsuari begira.
- 3.- Europar erakundearen rola indartzea azpiegitura proiektu handien jarraipen eta koordinazioan, Europa osoa komunikatzen duen benetako garraio sare bat izateko, epe barnean eta Europako Parlamentuak ezarritako lehentasunak betez. Abiadura handiko sareen alorrean dauden murrizketak kentzea, Europa erabat konektatutako kontinente bihurtzeko.
- 4.- Trenbidearen garapena bultzatzea, beste garraiobide batzuen benetako alternatiba gisa, eta europar trenbide-esparru bakarraren eraketa eragozten duten oztopoak kentzea; horri begira, eskumen gehiago eman behar zaizkio Europako Trenbidearen Agentziari, eta sektore honen garapena tratatzen duen arau-komplexutasuna erraztu behar da.
- 5.- Ikerkuntza garatzea propulsoire iraunkorren eta ibilgailu konektatu eta adimentsuen alorrean, Europako mugigarritasun-sistema adimentsuan integratzen laguntzeko.
- 6.- Zeru bakarreko proiektuaren garapena behin betiko bukatzea, aire-esparruaren erabilera eta garraiobide horren eraginkortasuna arrazionalizatzeko.
- 7.- Itsasoko autopista deritzanak garatzea, eta baita itsasontzi seguruago eta iraunkorragoak ere, itsasogarraioaren eraginkortasuna hobetzeko eta espezializazio aukerak eskaintzeko europar sektore estrategikoei, hala nola ontzigintzari.
- 8.- Printzipio horiek guztiak modu koherentean aplikatzea Euskadin konprometitutako azpiegitura, inbertsio eta jardueri, honako hauek barne sartuta: abiadura handiko sareak, bide-azpiegiturak, aireportuetako azpiegiturak, errepideak, eta abar, europar proiektuetan integratuta.
- 9.- Aurrera egitea mugigarritasun-sistema integral honen erabiltzaileen eskubideen aitortzan eta irtenbide teknologiko integratuen garapenean, erabiltzaileei errazteko mugigarritasunaren dimentsio berri honetan sartzeko bidea.
- 10.- Europar lidergoa sustatzea paradigma berri honen eskutik agertuko diren teknologia eta lanbideetan. Mugigarritasun integratua kalitatezko enpleguen sorleku emankorrenetako bat izango da datozen urteotan.

## 9.- HEZKUNTZA ETA GAZTERIA

Hezkuntza ezagutzaren triangeluaren erpinetako bat da, ikerkuntza eta berrikuntzarekin batera. Irudi poligonal horren gainetik ezartzen dira datozen urteotako europar lehiakortasunaren eta gizarte-inklusioren oinarriak. Berriztatzea ezinezkoa izango da ikerkuntza-sistema sendorik gabe. Gisa berean, ezinezkoa izango da berriztatzea eta ikertzea XXI. mendera egokitutako hezkuntza-sistematik gabe.

Berrikuntza, ikerkuntza, sormena, hezkuntza- eta pedagogia-bikaintasuna, lehiakortasuna, mugigarritasuna, hezkuntza-enpresa aliantza, sen ekintzailearen bultzada eta enpresen sorrera lortu beharreko helburuak dira europar agendan, hezkuntza eta gazteriaren alorrean.

Berriki estreinatu duen programazioaren bitartez (Erasmus+ Programa, Horizon2020, eta abar), Europar Batasunak hezkuntza-sistemaren bikaintasuna bultzatu nahi du, unibertsitateak eta lanbide heziketako ikastetxeak enprekin modu estuagoan lotzeaz batera. Bada, beraz, hezkuntzaren eremua eta lan-sektorearen beharrak bereizten dituen distantzia laburtzeko konpromiso bat, gai horrek gazteak ukitzen baititu bereziki.

Beste alde batetik, gazteei etorkizuneko erabakietan parte hartzea ahalbidetzen dieten espazioen sorrera, batez ere europar eraikuntzarekin zerikusia duten gaitan, eta mugigarritasunaren bultzada garrantzi handiz agertzen dira gazteak laneratzeko eta etorkizuneko proiektu komunean integratzeko. Esparru horretan, mugigarritasuna bereganatzea eta horri aurre egiteko beharrezkoak diren hizkuntza-gaitasunak eskuratzea hezkuntza-sistemak gure gazteei transmititzen dien ondarean integratu behar dira.

Kasu guztietan, ikasleen zein irakasleen hezkuntza-gaitasunen hobekuntza, langileen bizitza osoko prestakuntza-ingurunea hobetzeaz batera, lortu nahi dugun ezagutzaren gizarte inklusiboak oinarritzat hartu behar duen sistema berriaren gako nagusia da.

Alde horretatik, Euskadik lankidetzan estuan jarraitu behar du lanean europar instituzio eta eragileekin; halaber, Europar Batasunak eskaintzen dituen aukerak eta esparruak aprobetxatu behar ditu, hezkuntza, lanbide heziketa eta goi mailako hezkuntza eta unibertsitate-hezkuntza bikainak izan daitezen eta gure gazte, heldu eta irakasleak Europako abangoardian egon daitezen. Euskal hezkuntzaren bikaintasunak europar instituzioen aitortza lortu du, zenbait ekintza eta proiektutan izan dugun parte-hartzeak erakusten duen bezala; gainera, Europako eskualdeen artean, gurea soilik gonbidatu dute Ikaskuntzarako Europar Aliantzaren parte hartzera.

### Horri dagokionez, EAJ-PNVk konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Hezkuntzaren eta gazteriaren europar agendaren helburuak lortzera zuzendutako ekintzak sostengatzea, batez ere alor akademikoaren eta lan-merkatuaren beharren artean dagoen etena murrizten laguntzen duten ekimen eta neurri guztiak.
2. Hezkuntza-gaitasunak eta langileen prestakuntza etengabea haien bizitza osoan hobetzera zuzentzen diren ekimenak sostengatzea.
3. Europar Batasunak bikaintasunaren bilaketarako eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzea ahalbidetzen duen lankidetzan-testuinguru bat sortzen laguntzea, bai oinarritzko hezkuntzan eta bai goi mailakoan eta lanbide heziketan.
4. Gazteak laneratzeko eta lan-merkatuan parte hartzeko lagungarriak diren espazioen sorrera bultzatzea; ekintza horietako bat mugigarritasunaren hobekuntza izango da.
5. Konpromisoak eta garapen-neurriak eskatzea europar instituzioei, europar ekintza eta inbertsioek kontuan har ditzaten lurraldeen aniztasuna eta berezitasunak, europar programek eta ekintza estrategikoek eskaintzen dituzten aukeren barnean, hala nola enplegu digitalen aldeko Koalizio Handian.
6. Europar instituzioei eskatzea Gazte Bermea deritzan ekimena 30 urtetik gorako gazte guztiei aplikatu diezaietela.
7. Mugaz gaindiko unibertsitate-campusen aldeko pizgarriak eskatzea, mugigarritasunarentzat eta europar merkatu bakarraren konfigurazioarentzat duen esanahi bereziagatik.
8. Maileguak ematea ahalbidetzen duen berme-funts baten sorrera eskatzea, ikasleentzat errazagoa izan dadin masterretan sartzeko Erasmus+ programaren baitan.

9. Hezkuntza eta ezagutza hazkunde adimentsu, iraunkor eta integratzailearen oinarria izan daitezela defendatzea, espezializazio adimentsurako europar berrikuntza-estragiekin (RIS3) bat etorriz, lurralde-eraldaketa ekonomikoko agenda integratuak eratuz.

## 10.- INGURUMENA ETA ENERGIA

### A. Ingurumena

Europar Batasunak Ingurumenaren alorrean dituen jarraibide nagusiak kontzeptu hauetara zuzentzen dira: ingurumen-ekonomia eta baliabideen erabileraren eraginkortasuna, hau da, azken batean, klimaren aldeko ekintza handinahia proposatzen da. Lehentasun horiek garatzeko, ulergarri egiteko eta kuantifikatu ahal izateko, europar instituzioek zenbait tresna sortu dituzte alor horretan: karbono gutxiko ekonomia lehiakorrerako bide-orria, 2050 urteari begira; Ingurumenaren alorreko 7. Europar Ekintza Programa. Hemendik gutxira, esparru estratergiako bat onartuko da klima eta energiaren alorretan, 2020-2030 sasoirako.

Klima-aldaketaren aurkako borroka Europar Batasunaren ingurumen-programaren elementu nagusietako bat izan da azken urteotan, eta beste politika batzuk ere hasi da ukitzen, hala nola energia, garraioa eta eskualde-garapena. Europar Batasunaren klima-politikaren helburu orokorra da planetaren berokuntza 2°C-ra mugatzea, industriaren aurreko aroaren batez besteko tenperatura maila erreferentziatzat hartuta. Alde horretatik, gure ustez funtsezkoa da Europak 2020 urterako hartu duen konpromisoa betetzea, alegia, berotegi-efektuko gasen igorpenak gutxienez % 20 murriztea 1990ko mailen aldean, eraginkortasun energetikoa % 20 hobetzea eta energia berriztagarrien proportzioa handitzea kontsumoaren % 20ra iritsi arte. Horretarako, funtsezkoa da igorpen-eskubideen salerosketa-sistemak eraginkortasunez funtzionatzea.

Gure ustez, modu arduratsu eta etikoan jarduteko modu bakarra hazkunde iraunkor eta ekologikoa da. Horrenbestez, gure egiten ditugu europar instituzioek aurkeztutako ekimenak eta Europar Batasunaren jarrera, garapen iraunkorrera daramaten trantsizio eta eraldaketaren gidari bezala. Hala eta guztiz ere, hori gauzatzeko ezinbestekoak dira Europar Batasunaren lidergoa eta tokiko eta eskualdeko administrazioen parte-hartze aktiboa. Helburu handinahi horiek ikuspegi koordinatua eta gobernu maila guztien parte-hartzea eskatzen dituzte, beren gaitasunen neurrian. Klima-aldaketaren eremuan, berebiziko garrantzia hartzen du maila anitzeko ikuspegiaren aplikazioak. Gainera, garapen iraunkorraren kontzeptuak politika guztiak inspiratu behar ditu zeharkakotasunez. Gure ustez, Euskaditik ekarpen handia egin dezakegu eta badugu asko esateko alderdi horretan, inplikaturako administrazio guztien ahalegin eta egituraketaren bitartez eta bere herritarren bitartez.

### Horri dagokionez, EAJ-PNVk konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Karbono gutxiko ekonomiara iristeko bide-orrian aurreikusitako helburuak garatzea, eta baita Europako baliabideen erabilera eraginkorrerako bide-orrian eta ingurumenaren alorreko 7. Europar ekintza programan aurreikusitakoak ere.
2. Berotegi-efektuko gasak 2020 urterako gutxienez % 20 murriztea xedetzat duten neurriak sostengatzea, eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarrien erabilera proportzio berdinean bilatzeaz batera. Horretarako, igorpen-eskubideen salerosketa-sistema eraginkor bat abiatzearen alde azalduko gara.

3. Gutxieneko prezio baten ezarpena defendatzea, prezioei egonkortasuna emateko eta ikatzaren prezioa nahiko maila altuan mantentzeko, karbono gutxiko teknologietara zuzendutako inbertsioa erakargarria izan dadin.
4. Erreforma fiskal berderako ekimenak sostengatzea; ingurumenarentzat negatiboak diren diru-laguntzak ezabatzea; ingurumen-produktibitatea handitzea; zuzeneko laguntza enpresei; eko-diseinua eta eko-berrikuntza; produktu berdeen integrazioa; birziklapenaren sustapena; eta eraginkortasun energetikoa eraikuntza sektorean, beste batzuen artean.
5. Estatu azpiko entitateen, eskualdeen eta tokiko agintaritzen parte-hartze aktibo eta eraginkorra eskatzea, maila anitzeko ikuspegi koordinatu baten arabera jardunez.

## B. Energia

Energiaren gaia da Europar Batasuneko herrialdeek -Euskadik barne sartuta- aurrez aurre dituzten erronka nagusietako bat. Hornidura energetikoa segurtatzea eta energiaren prezioa arazo nagusietako bi dira. Halaber, europarrentzat garrantzi txikiagoa ez duen beste arazo bat da Europar Batasunetik kanpoko inportazioekin dagoen mendetasuna. Europako merkatu energetikoaren zatiketa da arazo horiek gainditzea eragozten duen oztopo nagusia. Horri guztia gehitu behar zaio atzeraldi ekonomikoak moteldu egin duela azpiegitura energetikoak eguneratzeko prozesua, aurreko hamarkadan abiatua. Gainera, horrek guztiak ondorio negatiboak ditu karbono-igorpenen mailan eta klima-aldaketaren aurkako borrokan (energia fosilen errektuntzak berotegi-efektuko gasen bi heren sortzen ditu mundu mailan).

Alde batetik, Europar Batasunak jarraitu behar du eraginkortasun energetikoa eta energia berriztagarriak sustatzeko politikak garatzen, beharrezkoak diren baliabide ekonomikoekin, petrolioarekiko mendetasuna murrizteaz batera, erregai fosilen alternatiba diren energiak sustatu, lehenetsi eta akuilatzearen bitartez.

Beste alde batetik, aurrera egin behar da energiaren merkatu bakarrera daraman bidean, politika energetiko komun baten bitartez. Monopolio energetikoak eta barrera protekzionistak desegin ondoren, energia berriztagarri eta iturri konbentzionalei laguntzeko politika estatalak oztopo bihurtu dira energiaren merkatu bakarra lortzeko. Diru-laguntzei buruzko politika horrek, berez interbentzionista izanik, antzinako monopolio nazionalen lekua hartu du, merkatu-batasunaren oztopo berri bilakatuta.

Egoera horrek merkatu energetikoaren eraginkortasuna eragozten du, bere zatiketarik eta lehiarik ezagatik, eta, gainera, horniduraren segurtasuna eta klima-aldaketaren aurkako borroka oztopatzen du. Merkatu bakarra, *mix* energetikoaren dibertsitatea eta horniduraren jatorria zenbat eta handiagoak izan, orduan eta baldintza hobeak izango ditugu horniduraren balizko krisiei erantzuteko.

Europar Batasunak espero zuen merkatu bakarra bultzatu egingo zela sareen jabeak eta banatzaileak bereiztearen bitartez, horrek mugen gaineko interkonexio handiagoa sortuko zuelakoan. Dena dela, krisi ekonomikoak –beste arrazoi batzuen artean- operadore estatalak jo ditu eta bilakaera positiboa eragotzi du.

Horren eraginez, merkatuaren lehiakortasuna txikia da eta diferentzia nabariak daude estatuen artean, neurri batean laguntzei buruzko sistema estatalen arteko desberdintasunen eraginez.

Euskadiren profil industrialaren ondorioz, euskal ekonomia intentsitate energetiko handikoa da bere jarduera gehienetan. Hazkunde ekonomikoak energia kontsumoa areagotzen du eta kalte egiten dio euskal merkataritza-balantzari, berton ez dugulako erregai fosilen iturri nahikorik. Horregatik, Eusko Jaurlaritzak energia aurreztea lehenetsi du Euskadiko Estrategia Energetikoan (3E2020); hala, beraren asmoa da aurrezpen energetikoa % 22 handitzea datozen 10 urteotan.

### Horri dagokionez, EAJ-PNVk konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Europar politika energetikoa sortzea, helburu hauekin:
  - Klima-aldaketaren aurka borrokatzea; horretarako, energia berriztagarriak eta –oro har- garbiak lehenetsiko ditugu, batez ere automobilgintza eta eraikuntza sektoreetan.
  - Merkatu energetiko eraginkorragoa lortzea, iraunkortasunarentzat eta lehiakortasunaren hobekuntzarentzat lagungarria baita.
  - Europako merkatu elektrikoa poliki-poliki homogeneizatzea; sorkuntza deszentralizatua eta hornidura-erregimen espezifikoak industriarentzat.
  - Berotegi-efektuko gasak igortzeko eskubideen enkanteek barne-merkatuan sortzen dituzten desorekak zuzentzea, eta baita “zeharkako igorleei” eragindako arazoak ere zuzentzea.
  - Europako merkatuaren zatiketa gainditzea, horniduraren segurtasuna bermatzeko, energiaren prezioen diferentziala murrizteko eta mendetasun energetikoa moteltzeko.
2. Energia berriztagarrien kostuaren kalkuluaren harmonizazioa defendatzea eta estatuen diru-laguntzen eskemak elkarri hurbiltzea edo harmonizatzea, energiaren merkatu bakarrera iristeko funtsezko urrats bezala.
3. Mugaz gaindiko interkonektore berrien eraikuntza defendatzea, merkatu energetikorako sarbidea elkarri errazteko.

## 11.- LEHEN SEKTOREA: NEKAZARITZAKO ETA ARRANTZAKO POLITIKA

Lisboako Ituna indarrean sartu ondoren, Europako Parlamentuaren botereak handitu dira eta elkarrekin erabakitze prozedura nekazaritza eta arrantzaren alorretan aplikatzen da, beste batzuen artean; horrenbestez, alor horretan hartu diren erabakien zilegitasun demokratikoa indartzen da eta erabakiak hartzeko prozesuen gardentasuna hobetzen da.

### A) Nekazaritza Politika Bateratua

2014-2020 sasoiko Nekazaritza Politika Bateratuaren (NPB) erreformak aldaketa esanguratsuak egin ditu laguntzen banaketan, eta Estatu bakoitzaren eskuetan utzi ditu alderdi batzuk arautzeko ahalmena eta diru-laguntzak arautzeko erabakia.

Horren ondorio praktikoa izan da espainiar gobernuak murriztu egin dituela Euskadik nekazaritza eta garapenaren alorretan zituen eskumenak. Zuzeneko laguntzak definitzen dituen Estatuaren denez, Brusela izan beharrean, espainiar gobernuak erabaki du nekazaritza-politika bakarra diseinatzea, estatu mailan, nahiz eta Ciolos komisarioak espresuki gaitzetsi duen erreformaren dokumentuak onartzeko egindako osoko bileran. NPBren “erregionalizazio” deritzana ez dago pentsatuta estatuak eskumenak berriz zentralizatu ditzaten, baizik eta Europako aniztasun aberasgarria sustatu eta sakondu dezaten.

### Horri dagokionez, EAJ-PNVk konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Euskadiren eskumen mailen errespetua exijitzea EBko politika guztien aplikazio eta garapenean, eta kasu konkretu honetan nekazaritza politika bateratuaren aplikazio eta garapenean. Horretarako, I. eta II. zutabeen eskumena eskatzen jarraituko dugu (zuzeneko laguntzak eta nekazaritzaren garapenerako laguntzak, hurrenez hurren), Euskadik alor horretan duen eskumena babesteko modurik onena delakoan.

2. Europar nekazaritza-sektorea bermatu eta garatzen duen Nekazaritzako Politika Bateratua defendatzea, kalitatea oinarritzat hartuta eta ekoizpen-metodo tradizional eta iraunkorrak zainduz, beraren ekoizpen-aberastasuna babesteaz batera. Merkaturatze-kate laburrak sustatzea kalitatezko tokiko ekoizpenentzat eta ekoizpen-sektorea ahalik eta gehien txertatzea lehen sektoreko ekoizpenen balio-katean.
3. NPBaren programa berrien gaitasunen garapena defendatzea, Europako nekazaritza-ekoizpenen dibertsitatea bermatzeko eta kontinenteko nekazaritza-garapenarentzat funtsezkoak izan diren europar eskualdeen ezagutza txertatzeko.
4. Ekoizleen rola hobetzea, haien elkarte eta kooperatibak merkatuaren funtzionamenduan ahaldundutzea, eskualdeen rolari eustea, batez ere nekazaritza-garapenerako programetan, eta laguntza-erregimen sendoagoa bermatzea ustiapen txikientzat, kalitatezko ekoizpenentzat eta belaunaldi-errelebuarentzat.
5. Berrikuntza eta kalitatea lehenesten dituzten politika guztiak bultzatzea, euskal nekazaritza eta arrantzako ekoizpen primarioaren bereizgarri gisa; halaber, aprobetxatzea nekazaritza eta arrantzako politiketatik datozen funtsak egitura-funtsekin edo europar gizarte funtsarekin konbinatzeko aukerak, arrantza-eremuak biziberritzeko programak eta nekazaritza-garapena bultzatzeko, ekoizpen horiek eta haien ingurune sozial, ekonomiko eta etnografikoa oinarritzat hartuta.
6. Etiketatze-politiken hobekuntza sustatzea, ekoizle tradizionalei eta nekazaritza-eremu ahulenei kalte egin diezaieketen arau-aldaketak onartzeko betekizunak zorrotzuz, jatorrizko izendapenen araudiei dagokienez.
7. Haien lanbideen eta dagozkien gizarte-eskubideen aitortzaren moduko neurriak defendatzea, kontuan hartuta emakumeen rola aitortzea eta sektorerako aukera berdinetan sartzeko justizia kontua dela eta lagungarria dela sektorearen produktibitatea handitzeko.
8. Teknologia berriak sektorean modu masiboan sartzearen alde egitea, kudeaketa-tresna gisa; komertzializazioa eta esperientzien trukea sostengatzea eta eskaintza integratuak sortzea, ekoizpen primarioan oinarrituta, eta horiek beren ekoizpenaren ingurune ezaugarriekin eta ondare kultural eta etnografikoarekin konbinatzea. Konbinazio hori europar marka bakarraren indargune bihurtzea, kalitatezko eskaintza turistikoa identifikatzeko.
9. Genetikoki Eraldatutako Organismoen (GEO) hazkuntzaren debekua defendatzea.

## B) Arrantzako Politika Bateratua

EBk arrantza sektorean hartu zituen lehenengo erabakiak 1970 urtekoak dira, eta haien xedez zen sektoreari laguntza estrukturala eta merkatu bateratu bat eskaintzea. Harrezkero, arrantza-politika zenbait aldiz eguneratu da, azken aldaketa 2014ko urtarrilaren 1ean indarrean sartutakoa izanik.

Arrantzako Politika Bateratu (APB) berriak helburu bikoitza lortu nahi du: alde batetik, Europako kostaldeei laguntzea, ekonomikoki bideragarria eta iraunkorra den arrantza-ontzidiaz egoteko baldintzak sortuz; bestetik, baliabideen kudeaketa iraunkorra bermatzea, arrantza-lekuek harrapatzen duten bolumena ahalik eta handiena izan dadin. Helburu hori lortzeko, ezinbestekoa da arrantza-espezieak kudeatzeko planak onartzea epe luzera, eta plan horiek lantzeko funtsezkoak dira gardentasuna eta sektorearen inplikazioa, batez ere erauzketa- eta eraldaketa-sektorearena, eta gutxieneko errendimendu iraunkorrak arrazionaltasunez ezartzea ahalbidetzen duten datu zientifiko objektiboen erabilera ere bai. Hori guztia funtsezkoa da sektorearen eta beraren profesionalen egonkortasunerako.

Helburu bikoitz hori lortzen laguntzeko, bazterkinak ezabatuko dira arian-arian eta Arrantzako Politika Bateratua kudeatzeko modua aldatuko da, industriak eta EBko Estatuak aukera izan dezaten arrantza-jardueraren eguneroko kudeaketaren alderdi asko definitzeko.

Kalitatearekin hartutako konpromisoari eutsiz, EAJ-PNVk etiketatze-politiken hobekuntza sostengatuko du, produktu fresko eta eraldatuen trazabilitatea bereziki ikuskatuz.

EAJ-PNVk bere egiten ditu Batzordearen diagnosiaren alderdi batzuk, erreformari heltzeari dagokionez. Bazterkinak murrizteko eta arrantzaren iraunkortasun sozial, ekonomiko eta ingurumenezkoa bermatzeko beharra; uste dugu ontzidiaren parte handi bat zaharkituta dagoela; uste dugu beharrezkoa dela populazioen eta ontzidien egoerari buruzko datuen fidagarritasuna hobetzea. Dena dela, aplikatzekoa den araudiaren konplexutasun izugarriaren jakitun gaude.

EAJ-PNVk uste du Europako Itsaso eta Arrantza Funts (EIAF) berriak arrantza-sektorea behartu behar duela harrapakin guztiak lehorreratzera, beren errentagarritasunari kalterik egin gabe. Horri begira, beste neurri batzuen artean, arrantza-tresna selektiboen berrikuntza bultzatzearen alde agertzen da, bazterkinen balorapenari buruzko azterlanak finantzatzeaz batera.

EAJ-PNVk uste du, gainera, Arrantzako Politika Bateratu berriak artisau-arrantzaz egiten duen definizioak ez litzukeela itsasontzien luzera-metroak soilik kontuan hartu beharko. Horregatik, EAJ-PNVk defendatzen jarraituko du beste adierazle batzuen erabilera, hala nola ingurune naturala errespetatzen duten tresna selektiboen erabilera, edo familiek jabetzan eta arrantza-jardueran parte hartzea, arrantza-politikaren iraunkortasun tresna gisa.

APBaren erregionalizazioaren ondorioa da neurriak bere txertatze-eremua hobeto ezagutuz hartzen direla. Horregatik EAJ-PNVk Eskualdeetako Aholkularitza Batzordeen rola defendatuko du, arrantza eskualdeka kudeatzeko bitarteko gisa. Ikuspegi horretatik, defendatuko dugu eskualdeak izan daitezela artisau-ontzidia zer den definitzen dutenak, ez EBko Estatuetakoko agintaritza zentralak. Gisa berean, ezinbestekoa da NPBarri lotutako gastu-programen erregionalizazioan parte hartzea, eta baita EGEFekin eta Egitura-Funtsekin dituen konexioetan ere.

EAJ-PNVk arrantza iraunkor eta arduratsua defendatzen du mundu osoan. Horregatik, legez kanpoko, deklaratu gabeko eta arautu gabeko arrantzari buruzko araudiaren aldaketa bat defendatzen du, horrelako praktikak baimentzen dituzten herrialdeen kontra arin jo ahal izateko; izan ere, praktika horiek itsaso-ekosistema hipotekatzen dute eta arriskuan jartzen dute familia askoren bizimodua. Inportazioaren gaineko kontrola indartzearen alde agertuko gara, gizarte-, ingurumen- eta osasun-*dumpinga* eragozteko xedez. Ildo beretik, arrantzaren irudi soziala aldatu behar da, orokorrean, batez ere araudia betetzen duten eta horretarako berriztatzen duten ontzidienak, euskal ontzidiaren kasuan bezala.

Aldi berean, ahaleginak biderkatuko ditugu hirugarren herrialdeekin ditugun arrantza-akordioak mantentzeko, indartzeko eta bultzatzeko, euskal ontzidiaren etorkizuna segurtatzeari begira. Sektorerearen parte-hartzea sustatuko dugu negoziazioetan eta, aldi berean, hitzarmen horien eta merkataritza-akordioen arteko inkoherentziak ezabatzearen alde agertuko gara, Europako arrantza-sektoreari kalte egiten diotelako, bai arrain freskoaren salmentan eta bai eraldatutako produktuaren salmentan.

### Aurrekoari lotuta, eta horri dagokionez, EAJ-PNVk konpromiso hauek hartzen ditu:

- 1.- Artisau-arrantza eta eskala txikiko arrantza arrantzako politika bateratuaren erreforman integratzen bukatzea eta horrek irekitzen dituen aukerak garatzea, eskualdeek parte hartu ahal izan dezaten kostaldeetako garapen-politika espezifikotik eta errentaren dibertsifikaziorako politiketan.
- 2.- Espezieak epe luzera kudeatzeko planak bultzatzea, harrapaketa-kuotak datu objektibo, ezagun eta gardenen bidez determinatuz, espezieek itsasoan duten egoerari buruzko datu zientifiko frogatuak oinarritzat hartuta.
- 3.- Altuera eta altuera handiko sektorerearen parte-hartzea hobetzea nazioarteko arrantza-hitzarmenen negoziazioan, eta legez kanpoko, arautu gabeko eta kontrolatu gabeko arrantzaren kontrolean egiten duen ekarpena aitortzea, akordioak EBrekin sinatzen dituzten hirugarren herrialdeen garapenari egiten dien ekarpena aitortzeaz batera. Europako arrantza-sektorearen irudi publikoa bultzatzea eta beraren praktiken iraunkortasuna aitortzea.

- 4.- Hirugarren herrialdeekin sinatutako arrantza-hitzarmenen edukien eta merkataritza-hitzarmenen arteko inkoherentziak ezabatzea, zeren kaltegarriak baitira Europako arrantza-sektorearentzat, bai arrain freskoari salmentari dagokionez eta bai produktu eraldatuaren salmentari dagokionez.
- 5.- Hirugarren herrialdeetako arrantza-produktuen inportazioen gaineko kontrola indartzea, legez kanpoko arrantzatik datozen produktuak edo gizarte-, ingurumen- eta osasun-*dumpingean* oinarritutako ekoizpen-abantailez egindako produktuak EBko merkatura sartu ez daitezen.
- 6.- Lehen sektoreko ekoizpenen eta arrantza-ekoizpenen etiketatze-politikak hobetzea; arrantzaren kasuan, bereziki ikuskatuko da produktuen trazalitatea, bai produktu freskoena eta bai eraldatuena. Nekazaritza- eta abeltzaintza-sektoreari dagokionez, jatorrizko izendapenen araudietan aldaketak onartzeko baldintzak zorrotz behar dira, ekoizpen tradizionalak eta bereziki hauskorrak diren nekazaritza-eremuak babesteko.
- 7.- Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko neurrien garapena defendatzea Arrantzako Politika Bateratuaren baitan. Neurri horien bitartez, emakumeen parte-hartzea handitu behar da Eskualde Batzordeetan, Kostaldeko Ekintza Taldeetan edo Ekoizleen Erakundeetan. Halaber, arrantza-sektorearekin zerikusia duten lanbide osagarrien aldeko neurriak sostengatuko ditugu (sare-egileak, neskatilak, fardel-egileak, eta abar), lanbide horien eta beren gizarte-eskubideen aitortza formala sostengatzeaz batera.

## 12.-EUSKARA ETA ELEANIZTASUNA

Europar Batasunak hogeita lau hizkuntza ofizial ditu. EAJ-PNVk nahi du euskara aitortua izatea Europar Batasuneko hizkuntza ofizial bezala.

Europako hizkuntza- eta kultura-aniztasunaren zaintza eta sustapena europar proiektuaren muinean dauden elementuak dira, eta lagungarriak dira herritarren eta herrien arteko elkarbizitza hobetzeko. Europar integrazioaren eta herritarren proiektu horrekin identifikatzearen alde agertzeak kontinenteko berezko kultura- eta hizkuntza-aniztasuna aitortzea eta zaintzea eskatzen du, instituzioetatik beretik hasita.

Europako berezko hizkuntza-aniztasuna benetan errespetatu nahi bada, ez da bidezkoa hizkuntza bat ofizialtzat hartzeari begira europar instituzioetan aplikatzen den irizpidea, alegia, estatuko hizkuntza izatea. Izatez, irizpide murriztaile eta diskriminatzaile horren eraginez, koherentziarik gabeko egoera ugari sortzen dira; adibidez: Europar Batasuneko estatu azpiko lurralde-eremu batean aitortza ofiziala duten hizkuntzek ez izatea ofizialak europar instituzioetan, nahiz eta administrazioan, hezkuntza-sisteman (unibertsitatea barne sartuta), hedabideetan, interneten, IKTetan, lanaren eremuan eta beste hainbat arlotan erabiltzen diren eta EBko hizkuntza ofizial batzuek baino hitzun gehiago izan arren; eta beste batzuek, aldiz, aitortza hori izatea estatuko hizkuntzak izateagatik soilik. Estatus hori funtsezko kohesio-betekizun erreala da, zeren milioika europar herritarren borondatearen adierazlea baita, eta, hortaz, demokratikoagoa den eta bere aniztasuna gehiago errespetatzen duen Europaren eraikuntzaren elementua. Estatus horrek baditu ondorioak hizkuntzek lan-saioetan duten erabileran edo alor instituzionalean sortutako agirien balio juridikoan.

Euskarak ez du estatus ofizial hori; dela dena, 2005 urteaz geroztik ireki zen euskara Europar Batasuneko instituzioetan zenbait mugarekin erabiltzeko aukera, kasu hauetan:

- Euskal herritarrek Europar Batasuneko instituzio eta erakundeei zuzentzen dizkieten komunikazioak, Europako Batzordea, Europako Arartekoa eta Justizia Auzitegia barne sartuta;
- Euskal ordezkarien hitzaldiak Euskadiren parte-hartzeari irekitako Ministroen Kontseiluetan eta Eskualdeen Batzordearen osoko bilkuretan;
- Baterako erabakiaren prozeduraz hartutako arauak euskaratzea (Europako Parlamentua eta Kontseilua, bateratuta).



Hala eta guztiz ere, neurri horien aplikazioak eskatzen du aurretiko akordio administratibo bat formalizatzea espainiar Estatuaren eta EBko instituzio bakoitzaren artean, eta itzulpen-lanen kostuak euskal instituzioek ordaintzen dituzte. Gainera, aipatutako arauen euskarazko bertsioak ez du balio juridikorik.

Gainera, Estatuak EBko erakundeekin –Europar Batasuneko Kontseilua, Eskualdeen Kontseilua, Europako Batzordea, Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordea, Europar Herriaren Defendatzailea eta Justizia Auzitegia-sinatutako akordio administratiboetatik igaro diren urteetan agerian geratu da akordio horiek ez direla guztiz betetzen.

Gainera, Europako Parlamentuan eurodiputatuek ezin dute euskaraz hitz egin (ezta katalanez edo gailegoz ere), zeren horretarako beharrezkoa baita Parlamentuko Mahaiaren erabaki bat.

Europar Batasunean, euskararen ofizialtasunak konponduko lituzke oraingo defizitak eta bere osoko garapena ahalbidetuko lioke euskarari, europar hizkuntza gisa. Euskarak 800.000 hiztun baino gehiago ditu, interneten erabiltzen diren hizkuntzen 44. postuan dago, Euskal Autonomia Erkidegoko gazteen % 70k baino gehiagok hitz egiten dute euskaraz, eta euskara irakaskuntza hizkuntza nagusi bezala erabiltzen da euskal hezkuntza sisteman, Unibertsitatea barne sartuta, eta baita herri administrazioan eta hedabideetan ere. Halaber, hizkuntzaren eta talentuaren euskal industriak eta euskarazko sorkuntzak Europaren aitortza lortu dute. Gure hizkuntza biziberritu da hiru hamarkadan, euskal gizartearen pluraltasunaren adostasun sozial eta politiko zabalena oinarritzat hartuta, eta hori lagungarria izaten ari da elkarbizitzarako eta gizarte-kohesiorako.

Aitortza hau ezin muga daiteke alor instituzionalera, ezta lekukotasunezko ekintza hutsa ere izan Europaren alorrean. Aitzitik, legegintzaldi honetan EAJk lan egin du hizkuntza horietako ekoizpen eta industria kulturek aitortza eta babesa izan ditzaten industria kulturalak sustatzeko planetan, hala nola “Europa sortzailea” deritzanean. Horri begira, Europako Parlamentuak oso aurrerapauso garrantzitsua egin du 2013ko irailaren 11ko Erabakiaren bidez; izan ere, Europar Batasunean desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzei eta hizkuntza-aniztasunari buruzko erabaki horrek hizkuntzei buruzko eztabaida despolitizatzen du, Euskal Autonomia Erkidegoan aplikatutakoaren moduko hizkuntza-politiken metodoak eta emaitzak baloratzen ditu, eta estatuak hizkuntza horiek errespetatzera eta babestera eta haien desagerpena eragoztera behartzen dituen legedi loteslea exijitzen dio Batzordeari.

### Horri dagokionez, EAJ-PNVk konpromiso hauek hartzen ditu:

1. Beharrezkoak diren aliantzak sustatzea Europar Batasunak ofizialki onartu dezan eremu urriko hizkuntza hegemonikoen erabilera, EBko estatuetakoa lurralde-eremu bateko hizkuntza ofizialak baldin badira, euskararen kasuan bezala. Horri begira, ekintza eta ekimen hauek abiatuko ditu:
  - Hizkuntza-aniztasunaren sustapena indartzeko neurriak har ditzala eskatzea berriro Europako Batzordearen taldeari.
  - Desagertzeko arriskuan dauden hizkuntzei buruz eta Europar Batasuneko hizkuntza-aniztasunari buruz Europako Parlamentuak 2013ko irailaren 11n hartu zuen Erabakian jasotako aurreikuspenak aktibatzea.
  - Hizkuntza koofizialak europar instituzioetan erabiltzeari buruz 2005ean sinatutako akordioen osoko betearazpena bermatzea.
  - 2005ean hartutako erabakiak sakontzea, akordio horien hiru eremuak zabalduz (herritarren komunikazioa; euskarazko hitzaldiak Ministroen Kontseiluan eta Eskualdeen Batzordean; eta baterako erabakien bidez onartutako legedia euskaraz argitaratzea).
  - Eurodiputatuari euskararen erabilera (eta katalana eta gailegoa ere bai, hala dagokienean) ahalbidetzen dien erabaki bat eskatzea Europako Parlamentuko Mahaiari, Europar Batasuneko Ministro Kontseiluarekin edo Eskualdeen Batzordearekin parekatzeko.

- Europako Kontseiluak onartutako Eskualdeko edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europar Kartaren betearazpena eskatzea beraren sinatzaile guztiei; halaber, beraren berrespena eskatzea, batez ere Frantziar Estatuari.
  - Eleaniztasunerako Komisarioaren figuraren berreskurapena eskatzea.
2. Hizkuntza Eskubideen Europar Kartaren onarpena proposatzea Europar Parlamentuari.
  3. Europako Hizkuntzen Mapa Funtzionala lantzerantz bultzatzea, hizkuntza-aniztasuna babesteko tresna eraginkor gisa, bai Europar Batasuneko estatuetakoa administrazioetan eta bai hezkuntza-sistemetan eta hedabideetan, eta, halaber, hizkuntza-erabilera europar instituzioetan ezartzeko.
  4. Europar Batasuneko lurralderen batean aitortza ofiziala duten hizkuntza ofizialen erabilera sustatzera zuzendutako neurriak hartzearen alde lan egitea, kontsumoaren alorretan.

## 13.- KULTURA ETA SORMENA

Europar Batasunak kultura eta sormenaren alde egiten du, zeren uste baitu hori dela potentzial handiena duten sektoreetako bat, bai europar hazkundea dinamizatzeko, bai enplegua sortzeko eta bai sektore ekonomiko berriak garatzeko eragile gisa. Kultura, sormena eta hizkuntza tokiko eta eskualdeko garapen faktoretzat hartzen dira, eta berrikuntza eta lehiakortasun faktoretzat ere bai.

Ikuspuntu ekonomikotik, kultura Europar Batasunaren BPGaren % 4,5 da gaur egun, eta 8,5 milioi lanpostu ditu. Datu horiek erakusten dute noraino diren garrantzitsuak Europar Batasunak bultzatzen dituen ekimenak, hala nola Europako Kultur Hiriburuak, Creative Europe programa berria edo Horizon 2020 Programa, besteak beste.

Creative Europe Programak agentziak abiatu ditu Europar Batasuneko Estatu guztietan; hala, Donostian Creative Europe Desk bat ireki da, Eusko Jaurlaritzak eta Europako Batzordeak kudeatuta. Horregatik, EAJ-PNVk agentzia horren iraupena eta finkapena eskatu ditu; izan ere, uste dugu funtsezkoa dela euskal kultura eta sormenaren sektoreak parte hartu dezan Programa horrek eskaintzen dituen aukeretan.

Kulturaren eta sormenaren industriak bultzatzeko funts fiduziario baten sorrera da *Creative Europe* ekimenaren berritasun nagusietako bat. Batzordearen asmoa da 1.000 milioi eurorainoko maileguak bideratzea sektore honetara, eta, epe luzera, finantza-erakundeek kultura eta sormenaren industriari begira duten jarreraren aldaketa estrukturala lortzea. Horregatik, uste dugu beharrezkoa dela Finantzen Euskal Erakundearen parte-hartzea eta maileguak lortzea kultura eta sormenaren sektoreko enpresentzat, interes-tasa neurritsuekin.

**Horri dagokionez, EAJ-PNVk konpromiso hauek hartzen ditu:**

1. Euskal kultur sektorearen aldeko plataforma gisa funtzionatzea, Euskadiko proiektuak eta enpresa kultural eta sortzaileak Creative Europe programetan sartzen lagunduz. Horretarako, "Creative Europe" bulegoa (Europa Creative Desk) bultzatuko dugu, foru eta udalekin dituen harremanak sakonduz.
2. Kultura eta sormenaren sektoreko ETEak eta elkarteak bultzatzea Creative Europeren diru-laguntzak EIFren abalekin konbinatzen dituen eskemaz baliatzera. Ondo baino hobeto dakigu sektore estrategiko hori sendotzea ezinbestekoa dela bizitasun sozialerako eta euskal komunitate kulturalaren eraikuntzarako. Horrek beraren iraunkortasuna eta lehiakortasuna eskatzen ditu nahitaez, europar jokalekuan. Hortik dator EAJ-PNVren apustua.

3. Finantzen Euskal Erakundearen parte-hartzea defendatzea; horri lotuta, Europako Inbertsio Funttsak (EIF) doako bermeak eskaini beharko lizkieke bankuei, kultura eta sormenaren sektoreko enpresei mailegu kopuru esanguratsua emateko konpromisoaren truke, zentzuzko interes-tasekin.
4. Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburua ekimena aktiboki sustatzea, europar instituzioen konpromisoa sendotzen saiatuz, Europa mailan ahalik eta oihartzun handiena lortzeko eta horren bidez Donostia eta Euskadiren irudirik onena proiektatzeko.

## 14.- EUROPAKO GIZARTE EREDUA

Europak azken hamarkadetako garai konplexuenetako bat bizi du, ikuspuntu ekonomiko eta sozialetik. Langabezia-tasak eta prekarietateak onargarria denaren muga gainditu dute aspalditik. Europako gizarte-eredua bera, bakar batez hitz egin badaiteke, agortuta egoteko zantzuak ematen ari da. Badirudi langabezia –batez ere gazteena-, pobrezia-poltsak eta prekarietatea finkatu egin direla Europa zaharrean. Gainera, desberdintasuna etengabe hazten ari da, eta badirudi horrek Europar Batasuneko iparraldea eta hegoaldea zatitzeko arriskua dakarrela.

Europa nabarmenki zahartzen ari da: hori oztopo erantsia da hazkundearen bidera itzultzeko. Munduko biztanlerian dugun pisu demografikoa gainbehera doa. Europako gizarte-ongizatearen ereduak eta pentsioen sistema unibertsalak ere efektu negatiboak nabaritu dituzte.

Nekez itzuliko gara iraganeko eskemetara, hots, kontsumoan eta zorpetzean oinarritutako eskemetara; aitzitik, eraginkortasunaren paradigmaren oinarritutako aro baten atarian gaude. Horregatik, berriztatu egin behar dugu, eraginkorrak eta lehiakorrak izateko. Lehiakorrak izan behar dugu, gizarte-kohesioa segurtatzeaz batera. Gizarte-kohesioa ezinezkoa izango da enplegua sortu ezean, eta horretarako lehiakorrak izan behar dugu nahitaez.

Horrenbestez, lehiakortasuna eta gizarte-kohesioa uztartu behar ditugu. Nahiz eta zaila den europar gizarte-eredu bakar batez hitz egitea, esan dezakegu badirela elementu komun batzuk europar sisteman: balio demokratikoak, eskubide indibidualak, negoziazio kolektiboa, merkatu-ekonomia, aukera-berdintasuna, gizarte-babesa eta elkartasuna. Gure ustez, Europar Batasunari lehiakortasuna falta zaio; beraz, lehiakortasun hori berreskuratzeko tresnak eskuratu behar ditugu, era horretan hazkundearen bidera itzultzeko. Eta hazkunde horrek iraunkorra eta integratzailea izan behar du. Berrikuntzaren eta teknologia berrien eskutik etorriko den hazkunde da birbanaketa-politikak abiatzea ahalbidetuko duen bakarra. Beraz, hezkuntzan, ikerkuntzan eta berrikuntzan oinarritutako eredu lehenesten dugu, hazkundearen oinarri gisa. Hezkuntza gehiago, kualifikazio gehiago eta hobeak, eta koordinazio handiagoa mundu akademikoaren eta enpresaren munduaren artean, horiexek dira enplegu gehiago eta hobeak sortuko dituzten bitartekoak.

EAJ-PNVtik, europar gizarte-ereduarekin dugun konpromisoa berresten dugu, Europako integrazio-politikaren gako nagusia delakoan. Alde horretatik, Europa sozialean sakontzeko konpromisoa berresten dugu indar handiagoz.

Biztanleriaren zahartzeak planteatzen duen erronkaren jakitun gara. EBk erronka horri heldu behar dio jaiotze-tasa akuilatzen duen politika demografiko baten bidez. EAJ-PNVren ustez, zahartzaroaren erronka produktu eta zerbitzuen eskaintza sortzeko aukera bat da; hori lagungarria izango da karga sozialak arintzeko eta, aldi berean, zahartze aktiboko politikak abiatzearen bitartez, enplegu berriak sortuko ditu. Ildo horretatik, zahartze aktiboaren KICren hautagaitza (Knowledge Innovation Community) sostengatuok dugu, Euskadi horren liderra baita Europako beste nazio eta eskualde batzuekin batera.

Horri dagokionez, EAJ-PNVk konpromiso hauek hartzen ditu:

- 1.- Europar gizarte-ereduaren estandarren gutxienekoen definizioa bultzatzea, osasun, hezkuntza, gizarte-babes eta gizarte-segurantzaren alorretan, eta EBko estatuetakoko herritarren arteko truke-prozesuak hobetzea, mugigarritasuna bultzatzeko. Beste neurri batzuen artean, bai gutxieneko soldata eta bai sarrerak bermatzeko gutxieneko errenta Europa mailan ezartzearen alde lan egingo dugu.
- 2.- Zahartze aktiboko politikak bultzatzea, aldagai klasiko eta asistentzialesi gehituz biztanleriaren segmentu horren parte-hartze sozial eta politikoaren dimentsioa.
- 3.- Desgaitasunak integartzeko politikak europar politiketako bektore horizontal bihurtzearen alde egitea.
- 4.- Berdintasun eta gazteriari buruzko politiken inklusioa sustatzea, faktore horizontal gisa, europar instituzioen ekintza eta ekimen guztietan, hots, hazkundera bultzatuz gizarte-kohesioa bermatzen duten ekintza eta ekimen guztietan.
- 5.- Gazte Bermearen ekimenak eta Europar Batasunaren enplegu-paketea sostengatzea; izan ere, uste dugu enplegu-paketearen garapen egokia eta koordinazioa lagungarriak izango direla benetako lan-merkatu bat eratzeke Europar Batasunean, lan-mugigarritasuna bultzatuz eta arazo sozialen garrantziari eutsiz, arazo ekonomikoen atzean geratu ez daitezen.
- 6.- Langileen parte-hartzea eta enpresa-gardentasuna defendatzea, eta baita elkarrizketa sozial etengabeko eredu ordenatu bat ere, lan gatazkak saihesteko eta gure industrien lehiakortasuna sustatzeko.
7. Langileen mugigarritasuna sustatzen duten neurriak bultzatzea, integrazioa eta lehiakortasuna handitzeko tresna gisa, enplegua sortzeko oinarritzat hartuta.
8. Pentsio-sistemen harmonizazioa sostengatzea, europar pensio-sistemaren horizonteari begira. Europako pensio-sistemaren zatiketa –banaketa ereditik kapitalizazioaren ereduraino doazen eskemekin, eredu hibridoetatik pasatuz- ez da lagungarria beharrezkotzat dugun lan-mugigarritasunerako, eta, jakina, ezta gizarte-kohesioa maila optimora eramateko ere.

## 15.-ARKU ATLANTIKOA

Atlantikoa Europara *sartzeko ate* bat da. Euskadik Arku Atlantikoko beste nazio eta eskualde batzuekin batera izandako parte-hartze aktiboaren ostean, Europar Batasunak aitortu du Arku Atlantikoaren arreak hazkunderako eta enpleguaren sorrerarako duen ahalmena; horrela adierazi du bere *Esparru Atlantikoarentzako Itsaso Estrategia bati buruzko Komunikazioan* eta 2013ko urrian onartutako Ekintza planean. Era horretan, aurrerapauso handia eman dugu orain dela bost urte zegoen arriskua gainditzeko, hots, Europar Batasuneko zona ekonomiko indartsuenetik –Erdialdeko Europa- baztertuta geratzeko arriskua gainditzeko. Arku Atlantikoak jarraitzen du Baltikoak, Mediterraneoak eta Artikoak jadanik hartu duten bidea, Itsaso Politika Integratuan sartutako estrategia baten bitartez. Garapenaren eta sinergiak sortzearen bitartez, besteak beste energia, itsaso-hondo ustiapen, arrantza, garraio eta enpleguaren alorretan, estrategia honek bermatu nahi du Atlantikoko europar eskualde eta nazio guztiek saihesten dutela Europako ekialdera zuzendutako zabalkuntza-prozesutik ondorioztatzen den *periferizazioa*.

*Hazkunde urdina* deritzanaren sustapenak inbertsio mardulak beharko ditu ikerkuntza, garapen eta berrikuntzan, eta baita teknologia berrietan eta azpiegitura pilotuetan ere. Euskadik eragile garrantzitsua izan nahi du Europar Batasunaren dimentsio atlantikoaren bultzadan, lurralde atlantikoetako enplegua eta hazkunde iraunkorra bultzatzeko xedez, esparru horretako lurralde-kohesioa indartzeaz batera. Orobat, kontuan hartu behar da Europar Batasunak merkataritza libreko akordioak bultzatu dituela Brasil eta Kanadarekin eta beste bat negoziatzen ari dela AEBekin, horrek garrantzi eta indar handiago ematen baitio Europar Batasunaren dimentsio transatlantikoari. Merkataritza-fluxuen aldetik espero dugun hazkunde esanguratsuak zenbait ondorio izango ditu, hala nola merkantzien garraio-azpiegiturak birdimentsionatzea lur, itsaso edo airetik.

Horregatik, EAJ-PNVk konpromiso hau hartzen du: dimentsio atlantikoari sendotasun handiagoa emango dioten ekintzak bultzatzea, europar agendaren baitan. Hala, europar funts eta programak Euskadiko ekonomiarentzat garrantzitsuak diren eremuetara bideratzen edo hor uztartzen saiatuko gara. Besteak beste:

- Itsaso Energia Berriztagarrien sektore industrialara sustatzea eta egituratzea;
- Atlantikoko ontziolen dibertsifikazioa eta gutxiago kutsatzen duten itsasontzien eraikuntza, batez ere arrantzarako;
- Arrantza eta akuikulturaren garapen iraunkorra;
- Klima-aldaketarekin zerikusia duten hondamendi naturalen prebentzioa eta kudeaketa;
- Kostaldean eta itsaso-esparruaren kudeaketa integratua;
- Kudeaketa iraunkorra eta arrantza-baliabideen zaintza;
- Ekosistemen jarraipena, karbono-aztarnaren murrizketa eta biodibertsitatearen zaintza;
- Eta ikerkuntza eta berrikuntza Sektore tradizionalan eta berrietan.

Beste alde batetik, Europar Batasuneko garraio-politikak 9 korridoretan oinarritutako sare zentral bat ezartzen du. Horietako bat, korridore Atlantikoak, Lisboa eta Estrasburgo lotzen ditu, Euskadi eta Akitania zeharkatuz. Sare zentrala osatzen duten 9 korridoreen mapak jasotzen ditu Euskadi Frantziarekin Akitanian zehar lortzen duten konexio intermodalak (euskal Y eta Bilboko Portua barne sartuta).

EAJ-PNVk konpromiso hau hartzen du: europar garraioen sare zentrala finantzatzen duen “Connecting Europe” finantza-mekanismoan dugun parte-hartzea optimizatzea. Horretarako, arku atlantikoko eragile politiko eta sozioekonomikoekin ditugun harremanak bultzatuko ditugu, batez ere Iparralde eta Akitaniakoekin, ikuspegi multimodalean oinarritutako proiektuak diseinatzeko xedez, zeren horrek ahalbidetzen baitu aurrerapauso mardulak egitea mugaz gaindiko lankidetzarako politikan.

Korridoreei esker, Europar Batasunak proiektuak garatu ditzake bere Estatuarekin koordinatuta eta mugaz gaindiko ikuspegi batez. Ildo horretatik, EAJ-PNVk kontuan hartuko du proiektu integratzaileak aurkezteko beharra, korridoreak dinamizatzeari begira; horrekin batera, hiri-dimentsioa ere dinamizatu beharko da, intermodalitatean oinarritutako ikuspegia osatzeko.

Korridore atlantikoko koordinazio arduradunekin ditugun harremanak indartuko ditugu, informazio esanguratsu eta zehatza izan dezaten beti, denbora errealean. Halaber, uste dugu europar instituzioen rola indartu behar dela azpiegitura-proiektu handien jarraipen eta koordinazioan, Europako Parlamentuak benetako europar garraio-sare bat eratzeko ezarritako dituen epeak betarazteari begira.

Gisa berean, harreman eraginkorra izango dugu agentzien arduradunekin, hala nola INEA agentziakoekin (The Innovation and Networks Executive Agency), indarrean dauden finantza-programak erabili ahal izan daitezen proiektuak integratzeko –adibidez: portuetakoak-, alderdi logistiko eta zerbitzu egokiagoekin.

EAJ-PNVk epe luzeari begira lan egingo du, EB mailan egindako planteamenduarekin bat etorritik; dena dela, erne egongo gara garraio-sarearen alorrean 2017tik aurrera egingo diren berrikuspenetan modu aktiboan parte hartzeko.

EAJ-PNVtik ahaleginduko gara garraio-politika kontzeptuaren ordez mugigarritasun-politika kontzeptua bultzatzen, garraio-sistema, ibilgailu eta azpiegitura guztiak kudeaketa-sistema adimentsu batean integratzeko eta horren bidez eraginkortasuna, zerbitzuaren kalitatea eta kostuak hobetzeko; hori guztia lagungarria izango da iraunkortasuna eta erabiltzaileei eskaintzen zaizkien prestazioak hobetzeko.

Gure lan-agendaren baitan, europar lidergoa sustatuko dugu paradigma honen testuinguruan sortuko bide diren teknologia eta lanbideetan. Mugigarritasun integratuaren alde egiten dugu, zeren uste baitugu datorren hamarkadako enplegu kualifikatuko nitxoetako bat izango dela.

EAJ-PNVtik trenbidearen alde agertzen gara, gainerako garraiobideen benetako alternatiba gisa. Horretarako, europar trenbide-esparru bakarraren existentzia eragozten duten barrerak ezabatzearen alde lan egingo dugu. Alde horretatik, sektoreari aplikatzekoa den araudiaren sinplifikazioa bilatzea gure lan-ildoetako bat izango da.

Gisa berean, itsasoko autopistak garatzearen alde agertzen gara, eta baita itsasontzien segurtasuna eta iraunkortasuna hobetzearen alde ere; era horretan, itsaso-garraioaren eraginkortasuna hobetuko da eta itsasontzigintzaren moduko sektore estrategikoen espezializazioa sostengatuko dugu.

Aire-sektoreari dagokionez, zeru bakarreko proiektua behin betiko bukatzearen alde lan egingo dugu, zeren horrek ahalbidetuko baitu garraiobide horren erabilera arrazional eta eraginkorra.

Gure konpromisoa da printzipio horien aplikazio koherentea sustatzea Euskadin konprometitutako azpiegitura, inbertsio eta jardueretan: europar proiektuetan sartutako abiadura handiko sareak, bide-azpiegiturak, aireportuetakoak, errepideak, eta abar.

## 16.- KANPO-DIMENTSIOA ETA ASKATASUN PUBLIKOAK

Europar Batasunak badu bere kanpo- eta segurtasun-politika propioa; guztiz konfiguratuta egotetik urrun egon arren, politika horrek ahalbidetzen dio nortasun propioz jardutea nazioartean. Kanpo eta Segurtasun Politika Bateratu hori nabarmenki finkatu da Lisboako Ituna 2009an indarrean sartu zenez geroztik, Batasunaren Kanpo Gaietarako eta Segurtasun Politikarako Goi Arduradunaren sorrerarekin, eta baita Europako Kanpo Ekintzarako Zerbitzuaren sorrerarekin ere; hala, europar zerbitzu diplomatiko horrek 140 ordezkari eta bulego baino gehiago ditu gaur egun mundu osoan.

EBren kanpo- eta segurtasun-politikaren helburuak dira bakea mantentzea eta nazioarteko segurtasuna indartzea, nazioarteko lankidetzaren sustatzea eta demokrazia eta Zuzenbide Estatua garatzea eta sendotzea, giza eskubideak eta oinarritzko askatasunak errespetatzeaz batera.

Aldi berean, Europar Batasuna da garapenerako laguntza munduan gehien ematen duena, eta hori leku pribilegiatuan kokatzen du garapen bidean dauden herrialdeekin kooperatzeko.

Europar Batasunak baditu loturak munduko eragile nagusiekin. Halaber, goi bilerak egiten ditu aldiro munduko herrialde garrantzitsuenekin, besteak beste gai hauek jorratzeko: hezkuntza, ingurumena, segurtasuna eta defentsa, delinkuentzia eta giza eskubideak.

Orobat, EBk bake-misioak bidali ditu gatazka egoeran dauden zenbait eremutara, eta laguntza humanitarioa eman die gatazka batzuetako errefuxiatuei, hala nola Georgiakoei. Gisa berean, terrorismoaren aurkako borrokan lagundu du, eskala globalean, eta krisi egoeretan esku hartu du hiru kontinentetan; horri dagokionez, azpimarratzekoak dira pirateriaren aurkako borrokan abiatutako ekintzak, bai Somalian eta bai Afrikako beste eremu batzuetan.

Beste alde batetik, askatasun, segurtasun eta justiziaren Esparrua Europar Batasunak bere muga barnean eta kanpoan garatzen duen politika eta jardueraren multzo oso bat izendatzen duen kontzeptu bat da; beraren xedea da lankidetzaren eta koordinazioerako esparru bateratu bat lortzea politika, polizia eta justiziaren alorrean, segurtasun handiagoa eta justizia eraginkorragoa lortzea, eta bere herritarren askatasun publikoak eraginkortasunez babestea.

Delinkuentzia antolatua nazioartean izan duen gorakada Europara ere iritsi da, eta horrek Lampedusan gertatutako moduko giza tragediak ekarri dizkigu. Kalkulatzen da horrelako delituen bidez lortzen diren irabaziak 25.000 milioi ingurukoak direla; horri lotuta, EBko muga barnean 880.000 behartutako langile daude eta 3.600 delitu-erakunde, gutxi gorabehera. Bere jarduerak –besteak beste– gizakien trafikora eta behartutako lanera zuzentzen dituen delinkuentzia antolatu horri ezin zaio tokiko eskalan aurre egin; aitzitik, EBko estatuen ekintza bateratua behar da horretarako.

Demokraziaren defentsa da askatasun publikoen defentsaren erreferentzia-esparrua izan nahi duen Europa honen ezaugarrietako bat. Funtsezko Eskubideei buruzko Europar Karta, Lisboako Itunean integratua, asmo-adierazpen baino zerbait gehiago da honezkero. EBko estatu guztiak lotzen dituen legedia da, hain zuzen ere.

**Horri dagokionez, EAJ-PNVk konpromiso hauek hartzen ditu:**

1. Europar Batasunaren kanpo- eta defentsa-politika bateratuaren behin betiko garapena eta kanpo-zerbitzu konpartitu bat bultzatzea, europar balioak munduan kokatu ahal izateko eta, balio horiekin bat etorritik, nazioarteko krisi eta gatazketan esku hartzeko.
2. Immigrazioari buruzko politika koherente bat garatzea, betoak eta EBko estatuen arteko harremanek gai horretan islatzen duten elkartasunik eza ezabatzeko.
3. Garapenerako lankidetzari buruzko politika indartzea, horixe baita legez kanpoko immigrazioa prebenitzeko eta giza eskubideak babesteko tresnarik onena.
4. Pertsonen trafikoan diharduten sareen eta legez kanpoko immigrazioarako sareen aurkako borrokan espezializatutako unitateen eraketa sustatzea, forntex-en baitan.
5. Delituen biktimak babesteko zuzentarauaren eta horrekin zerikusia duen legediaren edukiak puntualtasunez ekartzea gure legedira (adibidez: babeserako europar aginduaren edukiak), biktimek zigor-prozesuan duten posizioa hobetzeko EBko estatu guztietan eta haien babesbermatzeko EBren barneko mugigarritasun-kasuetan.





C) EUROPEAN DEMOCRATIC  
PARTY – EUROPAKO ALDERDI  
DEMOKRATAREN ADIERAZPENA

**EUSKADI  
GEHIAGO**



eaaj  
pnv

**EUROPA  
BERRIAN**

I AM  
BASQUE



## EUROPA: KRISITIK ITXAROPEN BERRIRA BIRFUNDAZIO GARAIK

Europari buruz geuk sustatu eta defendatzen dugun ideia puskatzen ari da herrien begien aurrean, eta talde politiko ahaltsuen erasoak pairatzen ari da.

Hala eta guztiz ere, herrialde, nazio, lurralde eta herritarrak garen aldetik, Europaren batasuna da benetako askatasunera eta burujabetzara aurrera egitea ahalbidetzen digun bide bakarra. Europa antolatua, boluntario eta demokratikorik gabe, munduaren gorabeherak pairatuko ditugu eta ez dugu inolako kontrolik izango haien gainean.

Guretzat beharrezkoa da Europar Batasuna defendatzea, baina defentsa horretarako aldatu egin behar dugu.

Jakitun gaude herritarrek Europar Batasunaren aurrean sentitzen duten desafekzioaren arrazoiez. Zuzendu eta gainditu behar ditugu. 2008az geroztik Europar Batasuneko herrialdeak –gradu desberdinetan- ukitzen dituen krisi ekonomiko eta finantzarioak sentimendu bat hedatu du herritarren artean, alegia, Europak ez dakiela erantzun bidezko eta iraunkorrik ematen arazoei. Bata bestearen segidan izan ditugun Europako Kontseiluen jarduna alferrikakoa izan da, eta horrek indartu ditu europar biztanleek aurretik zituzten zalantzak, Europak erabaki egokiak hartzeari dagokionez.

Bada, Europak kontrakoa egin behar du, alegia, ahots bakar batez hitz egin behar du, planteatuta dituen arazoei aurre egin behar die. Elkartasuna ez da gaurko gizartean soilik beharrezkoa; izan ere, ezinbestekoa da biharko europar Batasunak ongizatea eskaini ahal izan diezaien etorkizuneko belaunaldiei.

Elkarrekin jardun dezakegu; zatituta, aldiz, babesik gabe egongo gara. Eta babesik gabe egonez gero, mendean hartu eta zapalduko gaituzte.

Kontinente zaharreko herrialdeentzat funtsezko zutabea den Europar Batasun birfundatua nahi dugu. Birfundatuta egonda, Europar Batasuna funtsezko gaitan zentratuko da berriz. Birfundatuta egonda, kontzientzia izango du planetan duen botereaz, eta botere hori etorkizuneko belaunaldiak errespetatzen dituen garapen berritzaile eta orekatsuen zerbitzuan jarriko du. Birfundatuta egonda, herritarrak hartuko ditu bere instituzioen baitan.

### Europa aukeratzea burujabetza aukeratzea da

Oraingo Europa herrialde hurbil eta mugakideen artean bi mendez gertatutako gerra ikaragarrirei bukaera emateko asmatu zen batez ere. Europaren fundatzaileak XX. mendean hildako milioika pertsonen izenean aritu ziren. Eta gerra desagertu egin zen gure kontinentetik.

Fundatzaileen helburua zen kontinentearen ongizatea eta garapen ekonomikoa lortzea, mugak irekitzearen bitartez. Hiru hamarkadako hazkundera izan zen haien ekintzaren emaitza.

Europari esker, agerian geratu zen pertsonen eta merkantzien zirkulazio librea, kontinente beretik eta balio berberak konpartitzen zituzten herrialdeen artean, faktore indartsua zela beraren garapenerako.

Sobietar sistemaren porrota ekarri zuen eragile nagusia eredu komunistaren eta europar eredu liberalaren bizi mailen arteko alderaketa izan zen. Mendearen amaieran, haatik, globalizazioaren gorabeherak Europa osoa jo dute, gero eta neurri handiagoan.

Gure herrialde guztiek,ertainak edo txikiak Kontinenteko potentziek alderatuta, indar desestabilizatzaileen ondorioak pairatu dituzte: multinazionalen botere ekonomikoa, finantza-botereen hazkunde deskontrolatua –sarritan, gainera, ikusezinak eta nekez lokalizatzeko modukoak dira botere horiek-, ehunaka edo milaka milioi biztanle zituzten potentzia politikoen sorrera, biztanleria-mugimendu erraldoiak, kultur ereduaren edo eredu politiko-erlijiosoen arteko gatazkak. Faktore horien guztien eraginez, herrialdeak burujabetzaren gaiengatik interesatzen dira berriz ere.

Burujabetzaren gaia da politikaren gai nagusia; herriek beren etorkizun propioaz erabakitze eskubidea da; beren etorkizuna beren erabaki librearen bidez hobetzeko eskubidea; itxuraz halabehar historiko baten emaitza dena aldatzeko eskubidea.

Nolanahi ere, ezin zaie esan europar herriei burujabetza hori herrialde isolatu baten bakardadean aplika dezaketela, nazioarteko panorama berrian, zeren hori esatea gezurra esatea baita.

Eragina izan nahi badugu munduaren ibileran, beharrezkoa da baliabideak konpartitzea eta burujabetza bateratua sortzeko erabakietan parte hartzea. Etorkizuneko gai nagusien artean, ez dago bat bera ere bestelako modu batean eraginkortasunez jorratu daitekeenik: finantza-merkatuen erregulazio zuzen eta egokia; gorabehera espekulatiboetatik babesten gaituen segurtasuna; energia, ingurumen eta klimaren alorreko arazoek kudeaketa sinesgarria; ekoizpen-, moneta-, gizarte- eta ingurumen-*dumpingaren* aurreko erresistentzia; mugimendu demografiko kontraesankorren eta migrazioen kudeaketa; integrazioa: gure etorkizunaren horizontean agertzen diren gaien artean, ez dago herrialdeek beren kabuz soilik jorratu edo arautu dezaketen inolako gairik, eta are gutxiago eskualde historikoek edo potentzia ertainek bakarrik jorratu edo arautu dezaketenik ere; izan ere, eta zoritxarrez, Europako estatu bat bera ere ez da izango munduko zortzi ekonomia garrantzitsuenen taldearen kidea hogeitau urte barru.

## Europako krisia demokrazia krisi bat da

Hala eta guztiz ere, eta hauxe da Europako paradoxa kezagarria, herritar eta herrien parte handi batek ez du pentsatzen bere burujabetza praxira eramateko aukera nagusia Europar Batasuna denik, ez du horrela sentitzen; aitzitik, beren eskubideak kentzen dizkien mugatzat hartzen du.

Kontua da informazioaren mendean ezin dela burujabetzarik egon demokraziarik gabe.

Boterea opakua baldin bada herritarrentzat, herritarrak ez badira boterearen erabakiekin identifikatzen eta erabakietan parte-hartzerik ez dutela sentitzen badute, orduan boterea kuestionatua eta errefusatu da nahitaez.

Europako instituzioak konplexuak, opakua eta sofistikuak dira, hainbestearino non ulertezinak baitira herritarrentzat, eta batzuetan hor lan egiten dutenentzat ere bai. Erronka handi horiek europar ideia bera jartzen dute kolokan.

Halaber, deriba teknokratikoak ere nabarmenki bultzatzen du populismoa.

Horrenbestez, europar birfundazioa bi gai demokratikori erantzunez gauzatu behar da:

- Zein dira Europar Batasunaren benetako helburuak?
- Zein da herritarrek Batasun horretan duten benetako lekua?

## Zein dira Europar Batasunaren benetako helburuak?

Europar Batasunak bere baitan elkartu diren Estatu eta herrien ordezkarietaz jarduten du; Estatu eta herri horiek beren borondatez elkartu dira hor, modu iraunkorrean, isolatuta egonez gero eskurazekin izango litzaizkiekeen baliabideak, agintea eta eragimena izateko.

Horrenbestez, Europar Batasuna gidatzen duen printzipioa subsidiarioritasun printzipioa da; horren arabera, bakoitzak bere tokiko, eskualdeko eta nazio mailako ardurak gauzatu ditzake eta gauzatzen ditu bere eskumenekoak diren eremuetan. Horrek estatuen edo eskualdeen eskumen batzuen atzerakada ekar dezake berekin.

Gure ustez, Europa funtsezko gaietan zentratu behar da, eguneroko bizimoduaren milaka kontu txikiren alderdi guztiak arautu beharrean, horrek herritarrak lotsatzen dituelako eta ezegonkortasuna sortzen duelako enpresen jarduera-eremuetan.

1. Aukeraketa egin duten herrialde eta herritarrentzat, funtsezkoena eurozonaren integrazio politikoa da. Nazio eta herri horientzat, moneta bakarra egotea benetako aurrekontu-konbergentzia da. Beraz,

ezinezkoa da aurrekontu-konbergentzia izatea aginte politiko konpartiturik gabe. Zor nazionalaren arazoaren ondorioek zona osoa ukitzen dute, eta, hortaz, arazo hori erabaki politiko konpartituari ireki behar zaio. Benetako elkartasun-esparrua izanik, Europar Batasunak ezin onar dezake bere herriek elkar suntsitzea eta ahulenei bizkarra ematea. Aldi berean, moneta-zona bakarrak saihesten du jarduerak eremu lehiakorrenetan kontzentratzeak sortzen dituen desorekak, saihesten du beste eremu batzuen desertifikazioa; horregatik, moneta-zona bakar horrek lurraldea antolatzeko politika egoki bat eskatzen du, jarduera horiek modu homogeenan banatu daitezten lurralde osoan, hau da, banaketa homogeen hori sustatuz.

2. Herri eta herritarrentzat, funtsezkoena da gure ekoizpen-ahalmena indartzea eta biziberritzea Europako lurraldearen zati handi batean. Horrek eskatzen du ikerkuntza, berrikuntza eta ekoizpen-prozesu berriak bultzatzea kontsumitzaileei irekitzen zaizkien eremu berri ugarietan. Bada, eremu horietako asko ezin kontsidera daitezke europar birkonkista-estrategiarik gabe. Digitaltasunetik bioteknologiara, nanozientzietatik sareetara, etorkizunari begira erakunde indartsuekin lehiatzen gara, eta banan-banan ezinezkoa zaigu haien kontra borrokatzea; aitzitik, gure arteko batasuna ezinbestekoa da. Eurozonako lehentasun ekonomikoa izan behar da balioa sortzea ETEentzat, enpresarientzat eta eskulangileentzat. Estatu Batuetako “*Small Business Act*” legeak (enpresa txikientzako legea) egiten duen bezala, arau espezifikoko ezarri behar ditugu enpresa txikientzat, kredituetara eta merkatu publikoetara lehentasunezko baldintzetan iritsi daitezten. Lehia adimentsua behar dugu, hazkundearen zerbitzuan jarrita; beraz, lehia horrek europar talde handien sorrera bultzatu beharko du, ekonomia globalean lehiatu ahal izateko, horrelako ekimenak oztopatu beharrean. Hori konkurrentziaren lege absolutua baino hobea da, zeren horrek elkarren kontra jotzera bultzatzen baititu EBko talde sektorialak, elkarrekin aritzera bultzatu beharrean. Europako familien aurrezpena industriaren aldeko europar funts bat sortzera bideratu behar da, jarduera ekonomikoa akuilatzeke.
3. Funtsezkoena europar gizarte-eredua defendatzea eta sustatzea da; zoritxarrez, eredu horrek bere egonkortasuna galtzen du sarritan, arauen artean gertatzen diren desoreken eraginez: alde batetik, arau batzuk ezartzen dizkiegu gure ekoizleei, modu justifikatuan, europar lurraldean; bestetik, eta konkurrentziaren izenean, arau horiek errespetatzen ez duten eskualdeetatik datozen produktuak onartzen ditugu gure lurraldean eta gure merkatuan. Horrek gaitzespen eta arbuiatze sentimendu ulergarria pizten du gure herritarren artean. Beraz, elkarrekikotasun printzipioak eta gizarte- eta ingurumen-klausulak merkataritza libreko akordioen giltzarria izan beharko dira, gero eta neurri handiagoan, eta alor guztiak arautu beharko dituzte benetako lankidetzaren proportzionatua. Funtsezkoena eskualdeen arteko desberdintasunak murriztea da. Beharrezkoa da egitura-funtsen politikekin jarraitzea, egoera txarragoan dauden eskualdeen hazkundera ahalbidetzeko, diru-laguntza horiek modu eraginkorragoan eta eragingarriagoan erabiltzeaz batera.
4. Funtsezkoena da autohornidura askirako eta segurtasun energetikorako estrategia bat, sareen integrazioa eta horniduren osoko lankidetzaren barne hartzen dituenena. Energiaren europar komunitate bat proposatzen dugu, printzipio hauetan oinarrituta: europar talde energetiko bateratu baten dibertsifikazioa, horniduraren dibertsifikazioa, eta eskasia energetikoaren kasuetan elkarri laguntzeko mekanismo bat. Beste alde batetik, pentsaezina da energia fosiletara lehentasunez itzultzea; horrenbestez, gure ikerkuntza- eta garapen-politikak energia berriztagarrien ekoizpen eraginkorrera bideratu behar dugu, oraingo edo etorkizuneko hobiak modu egokian operatzeko ikerketekin jarraitzeaz batera.
5. Funtsezkoena planeta defendatzea eta klima-aldaketaren aurka borrokatzea da. *Green* estrategia oso handinahia izan da, teoria mailan, baina eraginkortasun txikikoa emaitzak lortzerakoan. 2030 urteari begira, igorpenen murrizketarako helburu berriak, energia berriztagarrien erabilera eta ahalmen energetikoak izan behar dira Europaren berrikuntza, enplegu eta hazkunde iraunkorrari buruzko politikaren zutabeak, mundu-lidergo bat lortzeko xedez, Kyotoren osteko gaitasuna gainditzeko eta gure ikuspegi ekonomikoak sustatzeko.

6. Funtsezkoena europar kanpo- eta segurtasun-politika da, nazioarteko jokaleku berria. Ziberdelinkuentzia eta terrorismoaren moduko erronka berrien eraginez sortzen den inperatibo bat da. Beharrezkoa da EBko estatuen indar armatuen baliabide operatiboak konpartitzea, eralgiketari eta eraginkortasun ezari bukaera emateko. Europak ez du presentziarik izan munduko azken gatazketan, eta orain ahots bakarra izan behar du nazioartean, kontuan hartua izan nahi badu. Aldi berean, beraren kanpo-politika Europaren berezko balioak sustatzeko tresna izan behar da, alegia, giza eskubideen errespetua, demokrazia eta garapen ekonomikoaren ekitatea sustatzeko tresna. Orokorrean, Europar Batasunak bere lankidetzaren politika indartu behar du Ekialdeko herrialdeekin. Horri dagokionez, Georgia eta Moldaviarekin sinatutako lankidetzaren hitzarmenak aurrerapauso positiboak dira, baina ez dira aski. Nahi dugu Europak hiru zirkulu izatea: eurozonako eta Europar Batasuneko berezko herrialdeetatik harago, “interes konpartituen zirkulu” bat nahi dugu europar estandarretara hurbildu nahi duten herrialdeekin, balio hauen inguruan: giza eskubideak, demokrazia eta pluraltasuna, merkatuko gizarte-ekonomia eta bizi maila.
7. Funtsezkoena da legez kanpoko immigrazioaren dramaren aurkako borroka zuzen eta eraginkorra. Europak beharrezkoak dituen baliabideak izan behar ditu eskura, aurrekontu, operatibotasun eta legedi aldetik, babes eta immigrazioari buruzko politika bateratu baten esparruan jarduteko, horien printzipioak 1999az geroztik baitaude indarrean. Premiazkoena da Europako kostazaintza kidego bat eratzea Europar Batasuneko itsaso-mugak zaintzeko eta Mediterraneoan noraezean agertzen diren itsasontzietako bidaiariak erreskatatzeko eta jasotzeko, GKEen presentziarekin. Europa ezin izan daiteke munduari itxitako gotorleku bat, baina ezin ditu ateak zabal-zabalik izan, gizakien trafikanteen mesederako. Europak garapen bateratuko politika bat behar du, guztiontzat onuragarria dena, guretzat eta gure bazkideentzat, batez ere Afrikarentzat: immigrazio arautua onartu behar dugu, immigrazioaren jatorri diren herrialde eta eskualdeekin kooperatuz, baina ez haien kalterako.
8. Funtsezkoena da Nekazaritzako Politika Bateratua indartzea eta erreformatzea. Elikagaien hornidura autonomoari emandako lehentasuna mantendu beha da, eta gure nekazaritzak ezaugarri hauek izan behar ditu: ingurumena errespetatu behar du eta produktuen kalitatea, trazabilitatea, elikadura-segurtasuna eta karbono-aztarna arreta bereziz hartu behar ditu kontuan, diru-laguntzarik gabe esportatzeko gaitasuna izateaz batera. NPBk ez du ekoizpena soilik defendatu behar, baizik eta abandonuaren eta narriadura hidrokologikoen mehatxupean dauden lurraldeak ere defendatu; halaber, ekoizleen eta familia-ustiapen bideragarrien sarea defendatu behar du, zeren beharrezkoak baitira gure gizartearen orekarako. Ahalbidetu behar du nekazaritzako ekoizpena prezio justuan ordaindu dadila, nekazariak bizi ahal izan daitezten zerbitzu publikoen laguntza jaso behar izan gabe. Une orotan, araua izan behar da laguntzak oreka handiagoz banatzea. NPB sendoa mantentzeak ez dio kalterik egin behar planetako gainerako eremuei.
9. Funtsezkoena diskriminazio forma guztien aurka borrokatzea da. Hala, adibidez, gizonen eta emakumeen artean dauden desberdintasunak, soldata zein arduren banaketa aldetik, iraganeko zerbait izatera pasatu behar dira. Orobat, Europar Batasunak ordainsariak berdintzeko eta ardura-karguak orekaz banatzeko ekimenak sustatu behar ditu enpresetan. Eta EBk diskriminazioaren kontra ere borrokatu behar du, eta baita sexu-orientazioagatik edo generoagatik gertatzen den indarkeriaren kontra ere, horren alderdi guztietan.
10. Funtsezkoena da kultura- eta hizkuntza-aniztasuna sustatzea, horrek aberasten baititu gure kontinentea, gure historia, gure hiriak eta eskualdeak. 90eko hamarkadan EBk gauzatu dituen ekintzekin jarraitu behar dugu eta ekintza horiek areagotu. Kontua da EBko estatuen kulturen garapena bultzatzea, nazio- zein eskualde-aniztasunari dagokionez, ondare kultural komuna agerian jarritz. Sorkuntza artistikoaren sektorea ere sustatu behar da, Europaz kanpoko konkurrentziaren botere ekonomikoaren aurrean. Halaber, garrantzitsua da europar estatuak mantendu ditzatela zinemara eta ikus-entzunezko sektorerara zuzendutako laguntza publikoen sistemak.

## Zein da herritarren benetako lekua Batasun honetan?. Aurrerapen demokratiko erabakigarri bat

Helburua da herritarrak benetan elkartzea Europako sare instituzionalean, eta erabakiak hartzearen aurreko hausnarketan benetan inplikatzeko.

Parlamentariak demokratikoki aukeratzen dira eta Parlamentua da Europar Batasuneko herritarrek eurentzat zuzenean aukeratzen duten instituzio bakarra: beraren rola indartu behar da. Horrek esan nahi du botere legegile handiagoa izan behar duela, gaur egun falta zaion iniziatiba-eskubidearekin hasita.

Batzordearen funtzioa koordinatzea eta betearaztea da. Beraren iniziatiba-funtzioa eskariei erantzunez gauzatu behar da, Parlamentuak eta Kontseiluak ezarritako esparruaren baitan. Beraren esku-hartze forma sakon berraztertu behar da. Ezin da jarraitu berari buruz orain dagoen pertzepzioarekin, alegia, eremu guztietan epaitu eta zigortzen duen organo bat dela, sarritan testuinguru nazionalak eta eskualdeetakoak kontuan hartu gabe eta oso atzerapen kaltegarriekin.

Batzordearen Presidentziarako hautagaien izendapena, europar hauteskunderen kariaz, lagungarria izan daiteke arreta handiagoa lortzeko boto-emaileen aldetik. Beharrezkoa da gardentasuna hobetzea: geuk proposatzen dugu Kontseiluaren Presidentea eta Batzordearen Presidentea pertsona berbera izatea. Era horretan, benetako europar lider bat izan nahi dugu, demokratikoki aukeratua, herritarrak ordezkatzeko dituen eta eraginkorra dena.

Europako Kontseilua europar herrialde guztietako eta bakoitzeko arduradun zilegi eta aitortuek osatzen dute. Gardentasuna eman behar diogu beraren ekimenei, beraren jardura publikoak herritarrei azalduz, benetan gardena eta ulergarria den jokaleku demokratiko batean. EBko estatu eta gobernuen buruak zuzenean entzutea, haien iritziak aurrez aurre jarritz eta haien konpromisoak jakinaraziz, lagungarria izango da herritarrek ulertu eta sostengatu ditzaten.

Premiazko kasuetan izan ezik, proposatzen dugu Europar Batasuneko erabakien agenda ezaguna izan dadila aurretik herritarrentzat eta horiek ordezkatzeko dituzten erakunde politikoentzat edo elkarreentzat.

Europa zuzen, ireki eta dinamikoa nahi dugu. Munduak miretsi dezala beraren kultura eta balioengatik. Beraren praxi politikoagatik errespetatua izan dadila.

Europarrak esnatu nahi ditugu; izan ere, badirudi Europa batuaren ametsa urruntzen ari dela, antzinako amesgaiztoak berpizten diren bitartean.

Nahi dugu Europa demokratikoaren aita fundatzaileak XX. mendean bultzatu zituen espiritua XXI. mendeko belaunaldi berriengana ere iritsi dadila, indar handiz.